# ARGI DONE
# LABURA



IRATXE
Librería Anticuaria
PAMPLONA
M-3

# ARGI DONE LABURA

ARGIA'REN ELIZ-LIBURUTXOA



Utzi umeai neregana etortzen

N - 29316
R 16746
ATV12.152

ARGIA'ren IDAZTIAK

# ARGI DONE LABUR'A

VITORIA

ARGIA

DONOSTIA
Iñaki Deunaren irarkola
1928

Nihil Obstat

*Lic. Petrus de Anasagasti*

*Censor*

Imprimatur

*Victoriae, die 28 decembris 1927*

*Episcopus Victoriensis*

†

Sigillum

# ITZ-AUŔEA

*Aur maitea:*

Liburu beŕiren bat eskutaratzen zaizunean, lenbizi egingo dezuna, auŕenetik azkeneraño dakartzkin santuen irudiak banan-banan begiztatzia, izango da, noski. Ume guziena da ori. Baña liburuko ikasgai osasungaŕiak geldi-geldi irakuŕi ta irakurtzen jardutia, a! ori auŕei gogaikaŕi egin oi zaizue.

Bazeñekizu ze ontasun aundik liburu on batian arkitu zenezazken! Liburu on bat irakuŕi zuelako santu egin zan Loyolako Iñazio. ¡Nork daki, ume, zure santutasunaren aziyare eskutan daukazun liburutxo onetan ¿ez ote leiken egon? Aurtxo txikia ziñanean, orduan bai, aingerua ziñan; gaur,

ordea, aingerutasuna galdu ez badezure, galtzeko ařixku aundian ikusten zaitut.

Iñoiz ixpilu baten auŕean egon izan bazera, an zure arpegia ikusiko zenduen; ala ez da?; alaxen begiratzen dio Jaungoikoak zure animari, ta zure anima oŕetan, ixpilu baten auŕean bezela, bere irudi edeŕa ikusten du. Baña begira: aoko luŕiñaren ikutua naikua da ixpiluari edertasuna osoro kentzen ez badiore, beintzat lausotua ta ilundua uzteko. Bada, munduak, deabruak eta jatořizko griña biguŕiak ematen duten kiratsak ere anima edeŕa lausotua utzi lezake, ¡oso il-ta uzten ez badu..! *Liriyuak*, zimuŕtzeko, xomořo baten ikutua naikua du. Alaxen, auŕaren animaren pozoi txaŕak zulaturik, belaskatua ta igertua gelditu liteke.

Oŕegatik, eta zu zeruan ikusteko gogo bizi bizia daukagulako, aur-

txoentzat guziz egokia dan liburutxo au argitaratu degu.

ARGI DONE LABUŔA'k izan bear du zoazen toki guzietara jaŕaituko dizun lagun zintzo ta erakustaḹe ona. Maiz eskuetan artu ta irakuŕi. Galde zaiozu zerurako bidea nondik dan, ta, eskutik artuta bezelaxe, zeruko bidetik eramango zaitu. Aitorketa edo Konfesiyua egitera zoazenian, nondik asi ta non bukatu ez dakizula, pekatuak nola esan eziñ asmaturik burunaste aundik badabiltzkizu, ez estutu: ARGI DONE LABUŔA'k zer egin erakutsiko dizu ta. Aurtxo ona izateko, aingeruen antzekoa bizitzeko, zeru edeŕa irabazteko zer egin bear dezun jakin nai dezu? artu eskuetako ARGI DONE LABUŔA, galde, galde gauz asko, ta ikusiko dezu ezariz-ezaŕiz zenbatxo gauza ikasiko dituzun.

Mutiltxoa bazera, egun edo bi-

yar lege-gizon argia, sendagile yayua, etxegile egokia, arotz, ar giñ, nekazari azkaŕa izatera iritxi ziñezke, baña jakintza ori guziya lur gañean artu ta lurpean bukatzen da. Nexka bazera, izan ziñezke, bear bada, izen aundiko irakaslaria. sukaldari txukuna, esku egokiko jostuna, zernaitarako trebea; baña jakintza oiek guziak, besterik gabe, etzaitue zeruan sartuko. Mundu guziaren jabe egintare, zer dezu zurea beiñ il ezkeroz? Jakintsu guzik baño jakintsugo izan aŕen; zenbat jakingo dezu aŕak eta xomoŕuak, zure buru-ezuŕa beren bizi-lekutzaz artzen dutenian? Aundizki guzik bañore aundizkigo bazera, bein lurperatu ezkeroz, zer zera bestiak baño geiago? Jakintza guzien artean auŕenekoa zerutik datoŕena ta zeruratuko gaituna da. Jakintza ori, bada, ARGI DONE LABUŔA'k emango dizu...

Guzien eskuetara zabaldu dedin, merke, oso merke salgai jaŕi da; ta eginkizun onetan, sinis zaiguzu. zure animaren ona beste irabazpiderik ez degu nai.

Jaunartze ospatsua egin bear dezun egunian, soñeko beŕia ta besoko biribista edo lazo edeŕakin, egun aundi oŕi dagokion bezela, Elizara zoazenian: ¿eskuan liburu eder batek ez al luke ongi emango? Bai, noski; bada egun artarakore atera degu azal edeŕeko eskuliburu guziz apaña. Onela azala ta mamia onak izango ditu.

Ez mutiltxorik ta ez nexkatxorik ez bedi liburu au gabe gelditu. Aur batek izan lezazkean lagunik onenak, zintzo, ta ongiĺeenak auetxek biak dira: ELIZ-DOTRIÑA ta ARGI DONE LABUŔA.

ARGIA

# Aur on baten bizi-bidea

EGUNERO

1.—Jeiki ta beriala «Gurutze santuaren» urbedeinkatuarekin egin ondoren, goizeko eskeintza ta eguneroko otoitzak egin itzatzu beti.

2.—Al bada egunero Meza entzun.

3.—Ikastolako jakiñ beaŕak ikasten alegindu zaite.

4.—Jatorduetan aora ezertxo ez eraman auŕetik otoitz egin gabe; eta jan ondorean Jaunari eskeŕak eman.

5.—Jolastu bear dezunean, jolastu zaite, baña mutiḹak mutiḹakin eta nexkak nexkakin.

6.—Lagun gaiztoetatik aldegin.

7.—Eguna Jainkoari pekatuarekin naigaberik eman gabe igaro zazu.

8.—Gauean etxeko guziak bildurik, Eŕosarioa esan. Oitura on au zure etxian galdu bada, zuk zeroŕek beŕiro sartu zazu.

9.—Ez beiñere oyera joan utsegite ta pekatuen barkamena Jaungoikoari, «Jesukristo nere Jauna» esanaz, biotzez eskatu gabe.

## ASTERO

1.—Igande ta jai-egunetan Meza osoa entzutea beartua zaude. Ez ordea nolanai entzun baztaŕetara begira ta aldameneko lagunakin izketan.

2.—Igande ta jai-egunetan Meza Nagusi ta Bezperetara zoaz, eta eliz-abestiak ikasi ta kantatu.

3.—Larunbatean aitorketa egitea ta jai-egunetan jaunartzea guztiz on litzaizuke.

4.—Eŕiko Elizan igandetako dotriñ-erakusketa baldin badago, alperkeriz utzi gabe zintzo zoaz.

## IL̄ERO

1.—Astero ez bada, il̄ero beintzat zure pekatuak aitortu itzatzu, ta jaunartu-re bai, auŕetik ongi gertu-ta.

2.—Ilaren lenbiziko ostiraletan, toki askotan oi dan bezela, eŕiko ume guztik jaunartze ospatsu edo *komunio jenerala* egiteko oitura bada, zu aietako bat izan zaite.



# OTOITZA

Gure indaŕez bakaŕik, Jaungoikoaren laguntza gabe, gauz onik ezertxore ezin genezake egin. Pekatu laŕi edo ilkoŕan il ezkero. eziñ zeruratu liteke iñor; nai-ta-naiez infernura amilduko da. Pekatuan ez erortzeko Jaungoikoaren laguntza bear da. Jaungoikoaren laguntza eskatzen duenak artuko du.

Jaungoikoari zor zaion agurtza emateko, otoitza beaŕekoa zaigu. Beaŕekoa zaigu, gañera, bide zuzenean beti irauteko.

Otoitz egin bear degu, gañera, zeruko Ama eŕukioŕari, etxeko gora-beretan ta eriotzgaraian laguntzaĺe ona dan Jose santuari, nor bere izeneko santu ta Aingeru-Zaindariari.

# GOIZEKO OTOITZAK

✠ Gurutze santuaren señaleagatik ✠ gure etsaiengandik ✠ zaitu gaitzatzu gure Jaun eta Jaungoikoa.

✠ Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

(100 eguneko barkamenak, ur bedeinkatuarekin egin ta).

*Gero esazu:*

NERE Jaungoiko maitea: kristau onari dagokion bezela gaur bizi nai det; baña zu gabe ezer eziñ nezaken ezkero, lagun zaidazu, Jauna.

*Sinispen, itxaropen eta maitasun egintzak.*

«Zugan sinisten det, Jauna. Egi utsa zeralako.»

«Zugan daukat, Jauna, itxaropena, Sinisgaria, ta agindutakoa betetzen zintzoa zeralako».

«Maite zaitut, Jauna, On-ona zeralako».

(7 urte ta 7 beŕogeiko barkapenak esan bakoitzean).

## Eguneroko eskeintza

JESUS'en Biotz Jaungoikozkoa! Mariaren biotz garbi-garbiaren bitartez eskeintzen dizkitzut gaurko nere otoitz, lan eta nekemiñak egiten zaizkizun txarkerien ordez eta, Zeoŕi beti eskeñiaz, aldarean dauzkatzun asmoetarako.

## «Aita gurea»

AITA gurea, zeruetan zaudena: santifikatua izan bedi zure izena: betor gugana zure eŕeinua: egin bedi zure borondatea zeruan bezela luŕean ere. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia: barka zazkiguzu gure zoŕak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela: ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen, baizikan libra gaitzazu gaitzetik. Alaxe.

## «Agur Maria»

AGUR, Maria, graziaz betea: Jauna da zurekin: bedeinkatua zera zu andre guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, eŕegutu ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzeko orduan. Alaxe.

## «Aintza Altari»

AINTZA Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari: Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Alaxen.

*Lateraz*:

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto: Sicut erat in principio et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

## «Kredoa»

SINISTEN det Jaungoiko Aita al guztidun, zeru-luŕen egiĺea, ta bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna: Espiritu Santuaren egitez sortu ta Andre Maria Birjiñagandik jaio zana, Pontzio Pilatoren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, iĺa ta obiratna izan zana, inpernuetara jetxi ta irugaŕen egunean iĺen artetik piztu zana: zeruetara igo ta Aita Jauugoiko alguztidunaren eskui-aldetik eseririk dagoana: andik biziak eta iĺak epaitzera etoŕiko dana. Sinisten det Espiritu Santua; Eliza Santu, Katolikua: Santuen alkartasuna: pekatuen barkamena: aragien piztuera, betiko bizitza. Alaxe.

## «Salbea»

AGUR, Eŕegiña, Aına Eŕukioŕa: gure bizi, gozo ta itxaropena, agur! Zure deiez gaude Ebaren ume erbeste-

tuok: zuri aiezka, antsiz ta negaŕez negar-eri onetan. Ea bada, itzuli itzazu gure bitarteko on oŕek, itzuli guganá zure begi eŕukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori. O Biozpera! O eŕukior! O Maria Birjin gozoa! Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done oŕek, Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun. Alaxe.

## Andre Mariari

NERE Ama ta Jabea: oroitu zurea naizela; zaitu ta begiratu nazazu zure gauza ta ondasuna bezela.

## Jose Doatsuari

JOSE doatsua, nere zaindari eztitsu maitea: lagun zaidazu.

## Norbere izeneko Santuari

NERE izeneko Santua: Jaunari neretzat eskatu, kristau eginbear-guztik ongi bete ditzadan.

## Aingeru Zaindariari

SORTU nitzanetik Jaunak laguntzat emandako Aingeru Santua: argitu, zaitu ta lagundu nazazu. Alaxen.

## Aingeru otoitza

ANGELUS Domini nuntiavit Mariæ.

R. Et concepit de Spiritu Sancto.

*Ave Maria...*

V. Ecce ancilla Domini.

R. Fiat mihi secundum verbum tuum.

*Ave Maria...*

V. Et verbum caro factum est.

R. Et habitavit in nobis.

*Ave Maria...*

JAUNAREN aingeruak Mariari adirazi zion.

R. Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuan. *Agur Maria...*

V. Ona emen Jaunaren mirabea.

R. Zuk diozun bezela egin bekit.

*Agur, Maria...*

V. Eta Jaungoiko Semea gizon egin zan.

R. Eta gure artean bizi izan zan.

*Agur, Maria...*

V. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix.
R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

*Oremus*

Gratiam tuam quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognovimus per passionem ejus et crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur.

Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

V. Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama done oŕek.
R. Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

*Otoitza*

Ixuri ezazu, aŕen, Jauna, gure biotzetan zure grazia, Jesukristo zure Semearen Gizakundea, Aingeruaren esanaz ezagutu genduanok, bere Nekaldi ta Eriotzaren bitartez, aintzazko piztuerara eldu gaitezen: gure Jaun Jesukristo beroŕengatik. Alaxe.

*«Angelus» buruz ez badakizu, esan zazu iru aldiz:*

Zure Sortze garbiagatik, Andre María, nere gorputz t'anima garbitu.

*Agur María...*

# JAN AURE TA ONDORENGO OTOITZAK

*Auŕeko:*

«Aitaren...»

BEDEINKATU gaitzazu, Jauna, ta zure eskuetako jateko auek ere, orobat bedeinkatu.

*Aita gurea... Agur Maria... Aintza...*

ZERUKO eŕege aundiak, ango maiean artu gaitzala. Alaxe.

*Ondorengo:*

«Aitaren.....»

ESKEŔAK Zuri, zure mesede guztiakatik, gizaldi ta gizaldietan bizi zeran eta agintzen dezun Jaungoiko Guzialduna.

*Aita gurea.....*

Jaungoikoak bere pakea eman dizagula.

Baita betiko bizitza ere.

# EGUN BITARTEKO OTOITZ

## LABUŔAK

ONETSIA (bedeinkatua) izan bedi Jaungoikoa.
(50 eguneko barkamenak).

JESUS, Maria, Jose.
(7 urte ta 7 beŕogeiko barkamenak).

## Lana asteko

JAUNA, lan au eskeintzen dizut; onetsi (bedeinkatu) zazu.

## Zitzaldian (tentazioan)

ANDRE Marîa nere Ama; zure itzalpera nator, etsaia ni galdu nairik dabil-ta.

# AŔATSEKO OTOITZAK

Emaidazu, Jesus maitea, gaurko nere utsegite guztiak ikusteko argia, biotzez gorotatu ditzadan.

## Gaueroko azterketa labuŕa

Goizeko ta eguneroko otoitzak egin al ditut?

*Elizan.*—Meza ondo entzun al det?—Meza entzuterik izan ez badet, Sagrarioan dagon Jesusi ikustalditxo bat bederik egin al diot? —Kristau ikasbidetan zintzo-zintzo egon al naiz?

*Etxean eta eskolan.*—Guraso ta maisuen esanak egin ditut?—Eliz-dotriña ta beste eskolako jakingaiak ikasten alegindu al naiz? —Zapuztu al naiz? Gaizki erantzun al diet?

*Jolasean.*—Lagun gaistoakin ibili al naiz? —Gauza txaŕik ikasî edo erakutsi al det?— Jaungoikoak ikustea nai ez duen gauzik egin al det?—Asaŕetu, edo iñor jo al det?—Pensamentu, izkuntza edo asmo txaŕik izan al det?—Beste zerbaitetan utsegin al det?

*Oyeratu baño len utsegite guztien*

*barkamena Jaungoikoari belaunikaturik biotz-biotzez eskatu esanaz:*

JESUKRISTO nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egiĺe ta salbatzaĺe ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zeitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitortu ta oben-nekea betetzeko. Alaxe.

*Gero iru «Agur Maria» goizean bezela.*

*(Oyean sartzen zeranean).*

GAUA aingeruen egopean igaro zadala, Jauna, indaŕak egin eta Zu biyar obeto maitatu ta zure aginduak zintzogo betetzeko.

JESUS Maria, Jose: nere biotz ta anima ematen dizkitzuet.



# AITORTZA

Pekatu ariñak aitortzea ez da beaŕekoa, baña bai on aundikoa.

Pekatu aundi edo ilkoŕa egin dnenak beste biderik ez dauka: edo aitortza edo betiko ondamena.

Apaizak barkatzen duena bakaŕik barkatua izango da zeruan.

Aitortza ongi egiteko egin bear nagusienak dira: 1:—Egindako txarkerik eta egin gabe utzi diran aginduak gogora ekaŕi. 2.—Biotzeko damua sortu. 3.—Asmo beŕi sendo bat artu. 4.—Obenak (pekatuak) aitortu. 5.—Oben-ordaña (penitenzia) bete.

*Jaungoikoaren auŕean belaunikaturik asiko zera:*

*Gurutze santuaren... Aita gurea... Agur Maria... Gloria...*

Atoz Espiritu Santua; bete zure sinismendunen biotzak, ta zure maitetasunaren su bizia oietan piztu.

V. Zure Espiritua bidali, ta zuzenduko dira.

R. Ta lurbira osoa beŕituko dezu.

## Otoitza

Zure jaŕaitzal̄een biotzak Espiritu Santuaren argien bidez zuzendu dituzun Jaun oŕek, emaiguzu: Espiritu Santu beroŕen bidez ona dana beti maite izatea, ta bere pozkidaz beti atsegintzea, Jesukristo gure Jaunaren izenean. Alaxe.

¡Nere Jaungoiko maitea!, nere pekatu guztiak ezagutzeko argitasun bizia emaidazu, ta oiek guztiak biotz-biotzez goŕotatu ta aitortzeko indaŕa!

Andre Maria, Ama eŕukioŕa, Jose Doatsua, nere Aingeru zaitzal̄ea: guztiok lagundu zaidazue aitorpen on

bat egiten, bada zuen laguntza bear-beaŕekoa zait.

*Aita gurea... Agur Maria... Gloria...*

*Orain zure baŕua aztertu ta ia zertan utsegin dezun.*

*Lenengo agindua: Jaungoikoa maiteen izatea.*

Auŕeko aitorketan bilduŕaz edo lotsaz pekatu aundiren bat aitortu gabe utzi al zenuen? Pekatu aundian beiñere Jaunartu al dezu?—Egunoroko otoitzak egin al dituzu?—Jaungoikoarenganako asaŕerik izan dezu?—Zuretzat barkamenik ez dagola etsi dezu? *(Ez oŕelakorik, ume: Kain oŕegatik galdu zan, Judas ere bai. Biotzez damutzen bazera, Jesus onak dituzun pekatu guztik barkatuko dizkitzu).*

*Bigaŕen agindua: Jaungoikoaren izena aotan alpeŕik ez artzea.*

Itz zataŕik esaten al dezu?—Jaungoikoaren Jesukristoren, edo Santuen izena nolanai ta begirapen edo lotsarik gabe mingañean erabili al dezu? *(Jaungoikoaren izena begirapenez esatea ona da; nolanai mingañean erabiltzea da txaŕa).*

Esaten dezuna obeto siñistarazitzeko, bea-

tzak gurutz-irudian jaŕita muñ egin al diozu? —Gezuŕetan ere bai?—«Emen eta Jaungoikoaren auŕerako» edo «Jaungoikoa dan bezela» edo oŕelako beste zerbait esan al dezu? (*Gezuŕakin gauz oiek esatea bi aldetara da pekatu: gezuŕa esan dalako ta Jaungoikoaren izena aotan artzen dalako. Egiarekin ere ez dira nolanai esan bear. Oitu zaite bada* **bai** *edo* **ez** *beti egia esatera, ta utzi alde batera beste esaera ta siñu oiek).*

## *Irugaŕen agindua: Jai-egunak Jaunari opaldu.*

Igande ta Jaiegunetan Meza osoa entzun dezu?—Berandu iritxi al zera?—Elizan izketan, beŕiketan, bazteŕetara begira egon al zera? (*Al badezu Meza Nagusi ta Bezperetara zoaz; eta Aita Santuaren gogoa betetzeko eliz-abestiak ikasi ta kantatu.*

## *Laugaŕen agindua: gurasoak aintzat edukitzea.*

Gurasoei lotsagabekeririk egin diezu?—Oien esanak gogo txaŕez egin, edo egin gabe utzi dituzu? —Erua, txorua edo oŕelako itz txaŕik esan diezu? —Zapuztu edo muxindu al zera? —Kopet ilunaz begiratzen diezu?—Anai aŕebakin asaŕetu, joka ta zipoka ibiltzen

zera? —Oienganako ezin-ikusi edo bekaizkerirık badaukazu? —Eliz-dotriña ikastera zintzo joaten zera? —Eskolako gauzetan maisuaren esanetara jartzen zera? —Jakin beařak ikasten alegindu zera? —Ate ondora datořen eskaleari, gizon edo emakume zařari iseka, kiñu edo ezpaiñ ọkertzerik egin diozu?

*Bostgařen agindua: iñor ez iltzea.*

Gorputzean:

Norbait jo, bořokatu edo ařamaskatu dezu? —Ałi tiraka jardun zera? —Eriotza, gaitza, erori ta miñ artzea, opa izan diozu? —Eziñ-ikusia, inbiriya, gořotua, aseřea izan diozu?

Animari:

Iñori pekaturako bidea eman diozu? —Gauza txařak erakutsi dizkatzu? —Ta, oraindik okeřago dana, erakuste txar oiek gaztetxoari eman ote dizkatzu? —Pekatu egiten lagundn al diozu? - Norbaitengatik gaizki esaka mintzatu ta ařen utsegiteak besteri kontari egon zera?

*Seigařen agindua: Aragikeririk ez egitea.*

Gogapen edo pensamentu txařak etoři bazaizkitzu, beriala kendu al dituzu? —Izkuntza txařetan egon al zera? —Begiratze itxusik izan dituzu? —Bakařik edo besterekin?—

Nolako lagunakin jolasten zera?— Dantza nastu ta zinietan izaten al zera? —Oyeratzerakoan edo oyetik jeikitzean lotsarik gabe jantzi edo erantzi zera? *(Jaungoikoak toki guztietan ikusten zaitula beti goguan eduki)*

*Zazpigaŕen agindua: Ez ostutzea.*

Zerbait ostu al dezu? —Ostutzeko asmorik izan al dezu? —Iñori kalterik asmo txaŕez egin al diozu? —Zurea ez dan gauzik, jabeak jakin gabe edo jabeak nai ez dula, al daukazu zerekin? *(Jabea nor dan jakin ezkero, biḹatulako gauza jabeari eman bear zaio. Jabea nor dan ez badakizu, nor izan ote leiken jakiten alegindu).*

*Zortzigaŕengo agindua: Gezuŕezko testigutza ez egin eta gezuŕik ez esatea.*

Txantxetan bederik gezuŕik esan al dezu? —Ta iñoren kaltez? —Maxiatzen eta ixilkaiak zabaltzen jardun al zera? —Eŕezegi iñor gaistotzat eduki al dezu?

*Bederatzigaŕengo ta amargaŕengo aginduak seigaŕenean eta zazpigaŕenean sartzen dira.*

***Begira ume:** pekatuak burura ekartzea gauz bat da, baña pekatuak burura ekar-*

*tze utsaz ez dezu ezer aureratzen. Pekatuarekin Jaungoikoa mindu dezulako biotzean damua artu bear dezu, ta pekatu guztia gorotatu. ¡Ortantxe, bai, jari bear zendukela ardura aundia! Egindako pekatu guztiak bururatzen ez bazaizkitzu-re aitortza ona izan leike; baña damutasunik gabe ez dira pekatuak barkatzen, eta aitortzako sakramentua alperikakoa izango litzake. Damutasuna bear bearekoa da, bada, aitortza ona izango bada.*

*Biotzeko damua artzen laguntzeko irakuri itzatzu astiro-astiro emen jartzen diran oarkai auek.*

## Bildur-damua

PEKATU egin det eta askotan egin det... ¿Noren kontra egin det pekatu? Jaungoikoaren kontra egin det, Jaungoikoa naigabetu det... Beraz nere gaiztakeria aundia da, Jaungoiko aundia mindu detalako; beraz nere pekatuen gaiztakeriari dagokien neurikozigorkada merezi det.

*(Ondoren letra txikiakin jartzen*

*dana, beta dezunean edo noizean bein irakuri zazu).*

Pekatua, beniala edo txikia deitu aŕen, berez ez da txikia, aundia da, Jaungoiko aundia mintzen dalako, Ugalde batek Noe ta bere familia ez beste gañerako gizon eta emakume guztiak ondatu zituen: aundia izandu zan kaltea, baño aundigoa da pekatu txikiaren kaltea, pekatuak Jaungoiko aundia mintzen duelako. Zerutik jetxitako suak eŕe ta kiskali zituen Sodoma aldeko bost Eŕi aundi: aundia izan zan kaltea, baña aundigoa da pekatu txikiarena. Ez da gertatuko, baña esate baterako: zeruko Aingeru ta Santuak infernura amilduko balira, aundia izango litzake kaltea, baña kalte aundigoa da pekatua. Infernuko demoniyuak eta anima galduak zerura eramatiagatik ere ez litzake pekatu txiki bat bakaŕik egin bear, pekatua beti Janngoiko aundiaren kontra dijoalako. ¡Eta nik zein eŕeztasunaz pekatu egiten detan...! Pekatu txikiakgatik Garbitokiko oñazetan egon beaŕean naiz, eta pekatua laŕ a edo ilkoŕa baldin bada beŕiz, betiko infernua merezi det ¡O Garbitoki iluna! ¡O infernu ikaragaŕia! O beti-betiko betikotasuna!

Pekatu laŕia (ilkoŕa) egin badet, edo egin

VITORIA

izan badet edo egiteko zoritxaŕa izango banuke, ¡ze zoritxar negargaŕiak ez lirake nere gaiñ etoŕiko...! Pekatu laŕiak (ilkoŕak) itxitzen ditu zeruko ateak, eta ez lirake neretzat beiñere irikiko damuzko aitortza on baten bidez ez bada... Munduko aita ta ama, gorputzeko osasuna ta luŕeko ontasun guztik betiko galtzeak alakoxe samintasun aundiaz biotza erdibitzen badu: ¡nolako naigabea ez litzake izango zeruko Aita, Ama Birjiña, Aingeru ta Santu doatsuen laguntza betiko galdu beaŕa...! nolako eziñ-etsia Jaungoikoaren arpegi edeŕa ikusi gabe beti egon beaŕa...! Aita ona dan Jaungoikoa asaŕe dago, ta infernuko demoniyua nere adiskide... ¡Ene, zer egin det! Jaungoikoak bere eskutik uzten banau, ¿nora joango naiz? ¡¡Betiko infernura!!

¡¡Infernura!! Eta infernuan zer dago? Sua, betiko sua... Poxpolo baten su-gaŕetan beatza jaŕita, ez nitzake luzaro egongo oñazearen oñazez lertu gabe... ¿Sutan goritutako burniari eskuarekin elduko banio? gogoratze utsak gorputz guztia ikaraz *dardar* jartzen dit... Eta suzko labe piztu batean sartu ta goritzen egon bear badet...? Eta zenbat denboran? ¡¡Beti!! ¡¡beti!! ¡¡beti!!

Beti, bai, beti: Jaungoikoa izango dan arte: beti, Infernuan dagon animak mila urte-

tik mila urtera negar malko bat ixuriko balu: ¿zenbat urte, zenbat milaka urte bearko lituke sula bat negar-malkoz betetzeko? ¿Noizko negar-malkoz itxaso bat osatu...? Mila urtetik mila urtera aingeru bat zerutik jetxi ta aldiko ondar izpi bat bakaŕa eramango balu: ¿noizko itxasoko ondartzak aitu...? Eta orduan infernua bukatzen al da? Ez, ta ez; ezer igaro ez balitz bezelaxe, beŕiro asten da... Eta pekatuak oŕelako zigorkada gogoŕa merezi al du? Pekatu laŕia edo ilkoŕa baldin bada, bai; pekatua txiki edo beniala baldin bada, edo mundu onetan edo Garbitokiko oñazeetan ordaindu bear.

*(Infernuaren oarkai auek pekatu laŕian erori diran animentzat jaŕi dira. Zuk, Jaunari eskeŕak, oŕelako zoritxaŕik izan ez badezu-re, ongi izango zaizu oarkai oek zure baŕu-baŕuan sartzea, pekatu laŕian erori etzaiten; gañera, pekatu txikien damua artzen asko lagunduko dizute. Bestela beŕiz, len esan zaizun bezela, damu gabe aitortza egitea alpeŕikako lana izango litzake).*

¡O Jauna! ¡ze gaizki egin detan! Zuzena zera zere erabakietan eta ez dezu iñor merezi baño geiago zigortzen. Pekatuak oŕelako

zigorkada eskatzen badu, naitanaiez pekatua gaistakeri itxusia da, eŕez asko egiten badiraŕe. Barkatu, Jauna, barkatu, emendik auŕera ona izango naiz-ta.

## Maite-damua

Eta ¿nor naigabetu det? Nere Aita nere Egilea, nere Eroslea, nere Jaun eta Jabea, nere Jaungoiko on-ona naigabetu det. ¿Nor da Jaungoikoa ta nor naiz ni Jaungoikoaren aginduak ausi ditudan bezela ausitzeko? Jaungoikoa dan bezelakoa izanik, menpetasuna, zintzotasuna ta maitasuna zor nizkan: eta Jaungoiko onen auŕean egin ditudan gaiztakeriak egiteko ausardia izan det...! Jesus, jayo orduràko, otzaz negaŕez dago, ta ni apaiñ zaletasun geiegiz txoro bat egiñik... Jesus Ama Birgiñaren eta Jose Deunaren aginduak zintzo egiten, eta ni nere gurasoen eta Jaungoikoaren aginduak egin naiezik... Jesus odo-

lezko izerdia erortzeraño neretzat otoitz egiten, eta ni egunoroko otoitzetan zabaŕa... Jesus arantzazko koroia buruan duela, ta nik nolako gorapenak ibiltzen ditut buruan...? Jesus nigatik zigortua, Jesus nigatik gurutzean il zan, eta ni beŕiro pekatuarekin Jesusi zauriak irikitzen... Jesus aldareko Ostian jaten ematen zait, eta nik zer ematen diot Jesusi ordañetan eskergabekeria besterik? Zer egin zezaken Jesusek neretzat egin duen baño geiago, ta zer egin nezake nik gauza txaŕagorik pekatua baño?

¡O zoritxaŕeko pekatua! ¡ai beiñere pekaturik egin ez banu! Orain ezagutzen det ze gaizki erantzun diotan Jaungoikoak didan maitasunari. Baña asko da: Jaungoikoa nere Aita da. Badakik damutzen danik ez duela iñortxore beregandik aldenduko; besarkatuko nau, biotzaren baŕuan sartuko nau,

*(Ondorengo otoitzak beta dezunean esateko jartzen dira).*

Nere Jesus maitea: umetxoekin eta pekatariekin on-ona izan ziñan. Begira: ni umetxo bat naiz, pekatari bat naiz; nerekin ere on-ona izan zaite. Barkatu Jauna.

Dauzkatan gauza guztiak: anima bere adimen ta borondatearekin, gorputza bere sentzuki guziekin, danak zuk emanak ditut. Alaz ere zuri esker onak eman beařean, zure eskutik artutako ontasun oiekin berekin zu naigabetu zaitut. Barka zaidazu, Jauna.

Jesus Auřa: Seaskatik maite ninduzun eta nigatik negar egin zenduen; nik beřiz, etzaitut bear bezela maite izan, bestela ez nituen ořenbeste pekatu egingo. Barka zaidazu Jesus.

Jesus: zure buruan arantzazko koroia jaři zizuten; zigorkadak emanaz zure gorputza odoldua, zauritua, ezuřak agirian zituela gelditu zan; aizkeneko tantoraño odol guztia isuri zenduen. Barka zaidazu.

Zure esku ta oñak iltze lodi gogořaz zulatu zituzten; gurutzean nigatik zintzilik il ziñan. Barka zaidazu, Jauna.

¡Ene Jaungoiko maitea! Barkatuko didazulako uste osoan nago nere Aita zeralako.

Jesus! barkatuko didazu, bai, nere Anaia, nere lagunik onen-onena zera-ta. Ardi galduen bil̄a zabiltzan Artzai on oŕek zure artaldean artuko nazu, bai. Madalenari, Pedrori, Lapuŕari barkatu ziezun eta zure eŕukiaren ateak jo dituzten guztien artean iñortxori-re barkamena ukatu ez diozu; beiñ barkatu ezkero iñori ez diozu egindako gaistakeria eundaño arpegira eman. Oŕelaxe barkatzen dakizu, Jauna. ¡Gure pekatuak kentzera etoŕi bai ziñan! Neri ere oŕetxek ematen dit barkatuko didazulako uste osoa. Ustea bakaŕik ez: badakit maitatzen bazaitut, nere utsegiteak aztu ta baztartuko dituzula. «Maitatzen duena ez dago il̄a» esan zenuen: maitatzen zaitut, bada, biotz-biotzez on utsa zeran Jesus, nere Jaungoikoa. Nere baŕua pozez atsegintzen da zure eŕukiaren ateak zabal-zabalik ikusi-ta, zure beso maitetsuak ni besarkatzeko irikiak ikusi-ta. Ala izanik: ¿zer beste gauzik egin nezake nik, Jauna, zure eŕukiak beti goratu baño? ¿Nola ez eduki barkatuko didazulako ustea, nik baño-re geiago zuk zeroŕek neri barkatzeko gogoa daukazu-ta? Nola ez maite nik ni ainbeste maite naun Jaungoiko ona?

Maite zaitut, bai, Jauna. Maite zaitut gauza guztik baño lenago ta geiago, ta maite zaitu-

dan baño oraindik geiago maite nai zinduzket; zeruko Santu, Aingeru ta Serafiñak baño bizigo, zure Ama Mariak baño-re sutsugo maite nai zinduzket; eta al balitz zerori maitatzen zeran neuŕigabeko maitasunaz nik zu maitatzea litzake nere nai ta gogo bizia.

## Ama Birjiñari

¡O Birjiña Maria, ume pekatarien gordelekua! nere pekatuen egiazko damua iritxi zaidazu. eta nere asmo onak onetzi itzatzu.

*Orain zoaz, ume; Apaiz jaunaren oñetara, eta gogoratzen zaizkitzun egindako pekatu guztik, batere lotsas edo belduŕaz utzi gabe, esaizkatzu. Ez ikaratu: ikusiko dezu ze bigunki artuko zaitun, eta zure animara etoŕiko dan atsegiña aundia izango da.*

*Aitortzen asi baño len, esazu biotzez:*

Nik, pekatari onek, aitortzen dict alguztidun Jaungoikoari, Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goi-aingeruari, zoriondun Jaun Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Do-

neai, beste Done guziei eta zuri, ene Aita, pekaturik asko egin dedala, gogapen itz eta egiteetan, nere eŕuz, nere eŕuz, nere eŕu aundiz. Oŕegatik eskatzen diot Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiei ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela nere alde Jaungoiko gure Jaunari.

Orain, esan lendabizi:

*Agur, Maria, guztiz garbia.*

Apaizak erantzungo dizu: *Pekatu gabe sortua.*

Esan gero:

*Iĺabete (edo astebete, ala noiz dan) da azkenekoz aitortu nintzala, eta ez nuan ezer utzi, ez lotzaz, ez azturik.*

*Azkapena (Asoluzioa) artu nuan.*

*Geroztik: Lenengo aginduan...*

*Bigaŕenean...*

Eta onela lenengo agindutik asi ta esan zeroŕek egin dituzun utsegite ta pekatu guztiak. Ez, asko bezela, aitorlearen galderen zai egon.

Onela egiñaz, erezago ta leñago bukatüko dezu, ta zuk esan ondoren, aitorleak beste galderaren bat egiten badizu, erantzun apalki, baño garbi.

Entzun gero berak emango dizkitzun erakuste (konseju) onak, gogoan oiek arturik, eta azkenik, azkapena (azoluzioa) ematera dijoakizunean, esan biotz-biotzez:

JESUKRISTO nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, nere egiļe ta salbatzaļe ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitortu ta obennekea betetzeko. Amen.

## Aitortu ondoren

Zure pekatu guztiak barkatuak daude, Jaungoikoa adiskidetu da, Ama Birjiñak maitasunez begiratzen dizu, zeruko aingeruak pozez daude, zure Aingeru-zaindariak bere egopean estaltzen zaitu; infernuko deabruak,

beŕiz, oŕuka infernuko zuloŕa sartu dira. Zeŕúa zabal-zabal zuretzat daukazu. ¡Bai zorionekoa zerala orain!

## Jaunari eskeŕak emateko

O nere Jaungoiko maitea: barkatu didazulako eskeŕak ematen dizkitzut. ¡Bai ona zerala! ¡Zenbat maite zaitudan, ene Jesuz! Betiko maitatu nai zaitut, eta gaurtik auŕera zintzo-zintzoa izango naiz; arestian aitortu ditudan pekatuak geiago egingo ez ditudala agintzen dizut, Jauna. Batez ere, pekatu auxe (esan zein pekatu) beste guztiak baño aundigoa zalako, geiagoren-geiago ez egiteko erabaki sendoa artzen det. Oŕelaxe nai det.

Ene Jaungoikoa: zure laguntzarekin nere erabaki au beteko det. María, nere Ama guztiz ona: zuk ere lagundu idazu. Nere Aingeru-zaindaria: nere ustea zugan jartzen det; zaitu nazazu.

**Oben-neke edo penitentziz apaizak eman didan otoitza zuri eskeintzen dizut, Jauna. Barkatu diskidatzun pekatuak oso-osorik garbitu ta aztu ditzatzun, zintzo-zintzo ta aŕetaz esango det otoitz ori.**

Orain bete zazu apaizak eman dizun oben-neke edo penitenziya.

Ume maitea: oraiudik une batzuetan Sagrario auŕean geldi zaite. Apaizak esan dizkitzun itzak gogora ekaŕi eta geldiro ausnartu itzatzu. Erabaki ondo-ondo artutako asmoak betetzeko nola eratuko zeran.

Elizatik irten baño len, pekatari eŕukaŕien alde *Aita Gurea* ta *Agur Maria* esan.



# JAUNARTZEA

GORPUTZAK bezin beaŕekoa du animak ere bere janaria, indartsu ta osasunez iraungo badu.

Janaria alde batera utzi ezkeroz, gorputzeko indaŕak gutxitzen dira, aultasunak laister luke bere ondoren gaitza, ta luzaro baño len naitanaiez gorputza ilko litzake. Ori bera gertatzen da animarekin ere.

Oŕegatik Jesusek onez-onez esaten digu: «Nere Aragia ziñez janaria da, ta nere Odola ziñez edaria: «Au da zerutik jetxitako Ogia: berau jaten duena ez da ilko».

Bera jaten eman naizaigu: «Nere Aragia jaten duenak eta nere Odola edaten duenak betiko bizia dauka ta azken egunean nik (ori) berpiztuko det».

Baña Jesusen dei maitetsuari entzungor egiten dionak goguan bitza beste itz auek:

«Egi-egiz dizutet: «Gizonaren Semearen Aragia jaten ez badezute, ez dezute zuen bařenean bizia izango».

Ez, bada, aitzakirik jaři; sařitan jaunartu ume. Pekatu aundia egitetik alde egizu, ta beste gabe jaunartzeko gertu zaude.

Alaz ere, jaunartu ałetik pekatu txikien erdoya kentzea ongi da, zure bařura datorkizun Jaun-aundiari zor zaion begirapena gatik. Pekatu txikien erdoya kentzeko bidea maitedamuzko egintza da, ta batez ere aitortza.

## JAUNARTU AUŘEKO OTOITZAK

GOGORATU Jaunartu baño len *zuregana datořen Jauna NOR DAN.*

*Zure Jaun ta Jaungoikoa dezu, Zeru-Lurřaren Jabea, zure Egiļea, zure Eroslea, zure Ongiļea ta Maitalea...*

*Eta biotz-biotzez esan:*

### Sinispen-egintza

NERE Jaun eta Jaungoiko guztiz Egizalea zerana! Sinisten det orain

artzera nuan Osti oŕetan zure Gorputz, Odola, Gogo (anima) ta Jaungoikotasun ber-bera ematen dizkidazula. Sinisten det, Zeroŕek ala esan zenuelako, ta ori egiztatzeaŕen, miīa ta milaka aldiz nere bizia emango nuke.

*Zertara datoŕen.*

Zuri esku-betez mesedeak ekartzera, zure zoriona emen luŕean egitera, gero zeruan ere egiteko.

## Itxaropen-egintza

JAUNGOIKO zintzoa: Zuk esan zenuen Zugan itxaropena jartzen duenik ez dala galduko. Zure agindu zintzoan, bada, nere uste osoa daukat, orain luŕean artzen bazaitut, gero zeruan Zurekin bat egiteko zoriona emango didazula.

*Zergatik datoŕen.*

Zuri dizun maitetasunagatik dator,

ez Berak zerbait irabaziko duelakoan zure oñak dakar zure biotzera, ez bere irabaziak.

## Maitetasun-egintza

JESUS maitagaria: nigatik gurutzean bizia emateaz gañera, zure Aragi garbiarekin ni indartzera zatozkit. Maite zaitut biotz, gogo ta indar guziaz. Eskatzen dizut zure maitetasunean bizi ta iltzeko zoriona.

*Norengana datoren.*

Zure biotzera dator, pekataria, ainbestetan pekatu lariz loitu dezun zure gogo edo animara. Bere etsaia izan zera, ta ara non datorkizun zure gaiztakeriak aztuta, adizkidetasunezko laztan gozoa beriro ematera.

## Damuzko-egintza

ENE Jaun aundia: zure aunditasunaren aurean nere ezereztasuna eza-

guturik, biotzez damutuaz auspezten naiz. Nola auŕeratu ninteke Zu artzera, ainbestetan eta ain gogorki naigabetu bazaitut? Ez, ez naiz ontasun aundi oŕen jabe egiteko aínbat diña; baña ala nai dezun ezkeroz, egin bedi Zuk nai dezun bezela.

Meza-laguntzaleak apaizaren *Domine non sum dignus* entzun-ta txintxaŕia jotzen duenean, esan zuk ere iru aldiz:

Jauna, ez naiz Zu nere etxean sartzeko diña, baña itz bakar bat esazu ta nere anima sendatuko da.

Gero, itz auek ezpañetan dituzula, zoaz begirune ta itzal aundiaz jaunartzera, mutila bazera besoak gurutzatuaz, eta nexka bazera eskuak bilduta, eta ez asko bezela eskuak sakelean (patrikaran) dituztela, bazter guztietara begira.

# JAUNARTU ONDORENGO OTOITZAK

Zure etxean artzean jaun aundi bateri egiten diozun arera ona, egingo al diozu belntzat, jaun guztien Jaunari:

## Otoitz eta egintzak

*Jauna gurtzeko.*

JESUS nere zoriona: Aritu ta zoraturik nago nigana etortzearekin egin didazun mesedeaz, eta itzuli dizkídazun ondasunaz. Zeruko aingeru ta santuekin batean, zure aurean auzpezturik, zure maitetasun eta erukia aintzatu, gurtu ta goratu nai ditut.

*Eskerak emateko.*

JAUNGOIKO Ona: Nere ezerestasuna begiratu dezu. Gaxo nengoen eta Zuk indartu nazu; beartsu arkitzen

ńintzan eta zure ondasunez bete názu. ¿Zer emango dizut, ene Jaungoikoa, zure eskuetatik artu ditudan ondasunen ordañez?

*Zerori eskeintzeko.*

NERE Jaun eta Jabea: naizen eta daukadan guzi-guzia damatzut, Zerońek guzi-guzia lenagotik eman didazu-ta.

Nere biotza nai dezu .. artu betiko Jauna.

Nere adimen, oroimen, gorputz ete anima, orobat zureak dituzu.

Zure maitetasuna naikoa det, ta ainbestekín txit aberatsa naiz.

*Esker-mesede beńiak eskatzeko.*

BAÑO ¿zer nezake, Jauna zure indar ta zure laguntzarik gabe?

¡Ene Jaun Maitea! Zure Gorputz-Odol agurgańiak jan-edaritzat artu

ditudan ezkeroz, aŕen eskatzen dizut, Andre Maria zure Ama bitarteko jaŕirik, itzuli dizazkidazula nere biotzean argitasuna, indaŕa, pekatuarenganako belduŕa ta etsaiaren ekiñaldi guztiak autsirik, Zurekin bat beti izatea.

Jesus, nere gurasoengatik ere eskatzen dizut; lagundu zaiezu, beren lanak onetsi itzatzu. Batez ere, Jauna, gero an zeruan guztiok, beti-betiko elkarturik egon gaitezen, emen luŕean kristau on eta zintzoak izateko laguntza emaiezu.

## Loyola'tar Iñazio Deunak esan oi zuen Otoitza

Kristoren anima, santutu nazazu.
Kristoren gorputza, salbatu nazazu.
Kristoren odola, asetu nazazu.
Kristoren saietsetako ura, garbitu nazazu.
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.

O Jesus ona, entzun zaidazu.
Zure zaurien baŕuan, gorde nazazu.
Zugandik alde egiten, ez neri utzi.
Etsai gaiztoengandik, gorde nazazu.
Eriotz-aldian, deitu nazazu.
Eta Zugana joatea, agindu zaidazu.
Zure santuekin batean, Betikotasun osoan Zu goratzeko. Alaxe.

(300 eguneko barkapenak. 7 urtekoa egunean bein, jaunartu ondoren esanda. Barkapen osoa iĺean bein aitortu, Jaunartu ta Eliz bat ikustatu ta bertan Aita Santuaren alde eskatuta).

## Jesus Gurutziltzatuari

(Bere irudi auŕean esan bear da)




¡O Jesus on eta guztiz gozoa! Auzpez belaunikaturik naukazu emen zure auŕean; eta nere animaren berotasunik aundienaz, bein eta beŕiz eskatzen dizut, piztu zazula nere biotzean sinis-

men, itxaropen eta maitetasun bizi-bizia, nere pekatuen damu egiazkoa, ta auŕerakoan besterik ez egiteko erabaki sendoa, nere biotzeko samintasun eta eŕuki aundienaz, Zure bost zauriak gogoratzen ditudan artean, begien auŕean eukirik, o Jesus ona, Dabid igarleak Zugatik auŕetik igaŕia: «Zulatu dituzte nere esku-oñak, zenbatu litezke nere ezur guztiak».

(Barkapen osoa Jaunartuta, Aita Santuaren alde zerbait otoi egiñik; Garbitokiko animentzako ona.)

## Andre Mariari

ITZULI nigana zure begiak, Maria Birjin txit goragaŕia, Zure begien atsegin poza orain egiñik nago-ta. Eskatu nere alde zure Seme maite-maiteari, bere Gorputz-Odol gozoa, jan-edariz eman dit-eta; zure irabaziak eskeñi nere beartasun aundiaren ordez. Eskeŕak eman nere izenean, eta eskatu: ez dedila nere biotz-ba-

ŕendik joan, nere gorputz-anima bere esker mesedez bete-betea lendauŕetik utzi gabe. Alaxe.

## Eriotz etsipena

(Eriotz-garairako barkapen osoa gaurtik irabazi dezakezu, kristaua. Une laŕi artan, erdi kordegabetua zaudela, agian barkapen oso ori irabazteko ez zera gauza izango: irabazi zazu bertatik, gaur bertan: *naiko dezu ortarako*' aitoŕtu, Jaunartu ta ondoren jartzen dan otoitza biotz-biotzez esatea).

(Pio X'gaŕenak 1904'ko Epaiîlaren 9'an).

### Otoitza

NERE Jaun eta Jaungoikoa: Zure gogozko edozein erako eriotza, bere laŕitasun, beldur eta oñazeekin, gogo onez zure eskuetatik oraintxetik artzen det.

Oarpenak:

1.—Barkapen osoa, bein bakaŕik bizian irabazten da eriotz-garairako.

2.—Ala ere askoz obe da askotan onela aitortu, Jaunartu ta otoitz ori esatea, ziur irabazteko).

# MEZA DEUNA

## Meza entzuteko era

### Meza auŕetik

*Batek.*—Jesukristo gure Jaunaren eriotza gogorazten digun Meza Donea entzutera goaz. Jesukristo il zan garaian, antxe gurutzearen oñean arkitu izan bagiña ¡bai zintzo egongo giñala! Meza Doneak Jesusen gurutzeko eriotza gogorazten digu; zintzo zintzo eta aŕetaz entzun dezagun.

*Guztiak.*—O Jesus, gure anima pekatutik askatu, eta zure maitetasunez betetzeaŕen, nekaldia igaro eta gurutzean il nai izan zenduan. Kalbario mendian, eta gurutzearen ondoan zeuden Ama Birjiñak eta San Juanek

zeuzkaten maitetasun eta eŕuki aiek gure biotzean jaŕi itzazu.

### Apaiza aldarera igotzean

*Batek.*—Entzutera goazen Meza au Jaungoikoari eskeñi deiogun.

*Guztiak.*—Nere Jaungoiko maitea: Zuŕe ondasun guztiengatik eta nere pekatuen barkamena iristeaŕen, eskeintzen dizut Meza Done au. Bizirik dauden eta il diran nere aide, ongiĺe eta adiskideen alde eskeintzen dizut. Baita ere eskeintzen dizut, zure Seme Jesus, eŕi ontan obeto ezagutua, eta maitatuagoa izan dedin.

### Apaizak Meza asten duan garaian

*Batek.*—Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak.*—Amen.

*Batek.*—Jaungoikoaren aldarera uŕeratuko naiz.

*Guztiak.*—Nere gaztetasuna pozez

betetzen duan Jaungoikoaren aldarera.

*Batek*.—Jauna, zure umeak eŕukia eskatzen dizute.

*Guztiak*.—Ez nazazu Jauna baztertu nere pekatuengatik. Betikotasun guztian zure ondotik aldendua bizitzeko zoritxar ikaragaŕiak ez nazala jo.

*Batek*. Gure laguntza Jaunaren izenean dago.

*Guztiak*.—Zerua ta luŕa egin zitun Jaunaren izenean.

*Batek*.—Nik, pekatari onek, aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai, pekaturik asko egin detala gogapen itz eta egiteetan.

*Guztiak*.—Nere eŕuz, nere eŕuz, nere eŕu aundiz. Oŕegatik eskatzen diot Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zori-

ondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai otoitz egiozutela nere alde Jaungoiko gure Jaunari.

*Batek.*—Jaungoiko alguztiduna gutzaz eŕukitu bedi, obenak barkatu eta betiko bizitzara eraman gaitzala.

*Guztiak.*—Alaxe izan bedi.

*Batek.*—Jauna, nere eskaria entzun zazu.

*Guztiak.*- Eta nere deadaŕa zugana igo bedi.

### Introitoan

*Batek.*—Jauna, gaurko egunean garbiak iraun dezagula.

*Guztiak.*—Or aldarean santu batzuen ezuŕak daude eta apaizak, ezur oiei mun egiten diete: Jesusen izenean, bada, eta Done oien irabazkiengatik, gaur garbiak iraun dezagula eskatzen dizugu Jauna.

*Batek.*—Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari.

*Guztiak.*—Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Alaxen.

### Kyrie, eleison'etan

*Batek.*—Jauna, gutzaz eŕukitu.

*Guztiak.*—Jauna, gutzaz eŕukitu.

*Batek.*—Jesukristo, gutzaz eŕukitu.

*Guztiak.*—Jesukristo, gutzaz eŕukitu.

*Batek.*—Jauna, gutzaz eŕukitu.

*Guztiak.*—Jauna, gutzaz eŕukitu.

### Glorian

*Batek.*—Aintza Jaungoikoari zeru goiean eta borondate oneko gizonei luŕean pakea.

*Guztiak.*—Jauna, maite zaitugu, bedeinkatzen zaitugu, gurtzen zaitugu.

*Batek.*—Zure ondasun guztiengatik eskeŕak damazkizugu.

*Guztiak.*—Munduko obenak kentzen dituzun, Jaungoikoaren seme

bakar Jesukristo gure Jauna, entzun gure eskaria.

### Eskarietan

*Batek.*—Jauna zuekin egon bedi..

*Guztiak.* — Gure biotzetan beti iraun dezala.

*Batek.*—Apaizarekin batean eskatu dezagun.

*Guztiak.*—Jauna; Ama Birjiña eta gaur agurtzen ditugun Santuen bitartez, apaizak beretzat eta guztiontzat eskatzen duana emaiguzu. Geren guraso, senide, lagun eta eŕi ontako kristau guztiei, zerura juateko beaŕezkoa duten laguntza, emaiezu.

### Epistolan

*Badakizute Jesukristo zerura igo ondoren, Apostoluak toki batetik bestera ibiĺi zirala Jesukristoren erakutsiak zabaltzen. Eurak ezin zitezken toki batean gelditu. Eŕi batean kristau-talde bat egiten zutenean, beste eŕi batera juaten ziran. Ordun*

*kristau oiek oztu etzitezen, apostoluak eskutitzak edo kartak bidaltzen zizkien. Geienak Pablo Doneak idatzi zituan.*

*Batek.*—Orain apaiza, apostoluak bidaltzen zituzten eskutitz zati bat irakurtzen ari da. Kristauak sinistu bear duana erakutsi digulako Jaungoikoari eskeŕak emaizkiogun.

*Guztiak.*—Bataioaren bitartez zure seme egin nazun nere Jesus ona; apaizak Kristau-Ikasbidean erakusten dizkidan egiak sinistera nere biotza jaŕi zazu.

*Batek.*—Bizitza guztian Beraganako sinismenean iraungo degulakoa agindu deiogun Jesusi.

*Guztiak.*—O Jesus: Elizak kristauei jartzen dizkien egin-bear guztiak betetzen bizi ta il nai det.

## Ebanjelioan

*Ebanjelioa Jesusen bizitza da. Egiazko Ebanjelioak lau dira: Mateo Apostoluak idatzi edo eskribitu zuana, Markos Doneak idatzia, Lukas Doneak idatzia eta Juan Apostoluak idatzi zuana.*

*Batek.*—Oraintxe ari da apaiza Jesusen bizitzaren zati bat irakurtzen. Ebanjelioari diogun itzal edo eŕespetoa agertzeko, bekokian, aoan eta bulaŕetan gurutze donea egin dezagun.

*Guztiak.*—Gurutze Santuaren señaleagatik gure etsaiengandik zaitu gaitzazu gure Jaun eta Jaungoikoa. Amen. Ebanjelioaren beŕi-ona mundu ontara ekaŕi zenduan Jesus maitea; zure itza sinisten det. Ni ona izanaz, nere auzokoak Zu geiago ezagutu eta maitatu zaitzaten, zure esanetara jartzeko indaŕa emaidazu.

*Batek.*—Goratua izan bedi Jesus.

*Guztiak.*—Bere Ebanjelio eta Gurutzearen bitartez erosi gaîtun Jesukristo goratua izan bedi.

### Kredoan

*Batek.*—Apostoluen Agiria esan dezagun.

*Guztiak.*—Sinisten det Jaungoiko Aita alguztidun, zeru-luŕen egilea, ta bere Seme bakar Jesukristo gure

Jauna: Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjiñagandik jaio zan, Pontzio Pilatoren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, il̄a ta obiratua izan zana; inpernuetara jetxi ta irugaŕen egunean il̄en artetik piztu zana; zeruetara igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldetik eseririk dagona, andik biziak eta il̄ak epaitzera etoŕiko dana. Sinisten det Espiritu Santua; Eliza Santu Katolikua: Santuen alkartasuna: pekatuen barkamena: aragiaren piztuera: betiko bizitza. Alaxen.

### Ofertorioan

*Batek.*—Ofertorio eskeintza esan nai du. Laister, Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odolean biurtuak izango diran ogia eta ardoa eskeintzen ditu oraintxe apaizak.

*Guztiak.*—Nere Jaungoikoa: Apaizarekin batean Opari Donea eskaintzen dizut, eta eskeintz au Zuri egitean lau gogo dauzkat: Zu gurtu; on-

SANCHO EL SABIO

tasun guziengatik Zuri ezkeŕak eman; nere obenen barkazioa eskatu; bear ditudan on beŕiak eskuratzea.

*Batek.*—Opari Done au Eliza Katolikuarengatik eskeintzen dizugu.

*Guztiak.*—Orobat eskaintzen dizugu ezagutzen etzaituztenak gaizkatu edo salbatu ditezen, eta gañera garbitokiko anima gaixoen alde zeruan len-bait-len artu ditzazun.

### Eskuak garbitzean

*Batek.*—Jaungoikoarengana alderatzean biotz garbia euki bear degula guri erakusteaŕen, apaizak eskuak garbitzen ditu.

*Guztiak.*—Zure aldare oñean bilduta gaudenen animak garbitu itzazu: lagun txaŕekin ibiltzean dauden aŕiskuetatik gorde, eta ez gaitzazu utzi pekatuan erortzen.

### Orate fratres'ean

*Batek.*—Eŕegutu anaiak—dio apaizak.—Umeak; apaizaren bitartez eta gureaz eskein-

tzen ari geran Opari Donea Jaungoikoaren gogozkoa izan dedin eskatu dezagun.

*Guztiak.*—Ar zazu, ene Jaungoikoa, Opari au zure izenaren aintzaz eta gorapenaz, eta gure Eliz Amaren onerako.

### Prefacium ta Sanctus'ean

*Batek.*—Eukaristiaren ezkutuki miragaŕia laister beteko da. Gure biotzak Jaungoikoarengana jaso ditzagun.

*Guztiak.*—Gure biotzak Jaungoikoarenak dira. Gure oiuak aingeruenakin batu ditzagun zeru-luŕen Eŕegeari biotz-biotzetik esateko: *Santua, Santua, Santua da Jaungoiko alguztiduna. Zeru-luŕak zure gloriaz beterik daude.* An zeruan zorionekoak bedeinkatu zaitzatela.

*Batek.*—Goratua izan bedi gugana datoŕen Jesus.

*Guztiak.*—Bai, goratua izan bedi aldarera laister jetxiko dan Jesus.

*Batek.*—Goratua izan bedi gure Irakasle ta Laguna dan Jesus ona.

*Guztiak.*—Goratua izan bedi Jesus gure Erosle eta Azkatzal̄ea.

### Konsagrazio-auŕetik

*Batek.*—O Aita guztiz ona; zure Seme Jesukristo gure Jaunaren izenean eskatzen dizugu, aŕen, Eliza Santuaren alde eskeiñitako Opari Done au bedeinkatzeko.

*Guztiak.*—Bai, Eliza zaitu zazu, gorde zazu, bere batasunean iraun dezala. Lur guztian zabaldu bedi eta pakea izan beza.

*Batek.*—Jauna, Aita-Santu, gure Gotzai eta apaiz guztien alde eskatzen dizugu.

*Guztiak.*—Zerura zuzendu gaitzaten guztiei argia ta indaŕa emaiezu.

*Batek.*—Eŕiko kristau guztien alde eskatzen dizugu, eta batez ere, gure aideen alde eta lenengo Jaunartzea egitera dijoazten umetxoengatik.

*Guztiak.* — Oroitu zaitez, Jauna, apaizaren otoitz-ardurapean jaŕi di-

ran eta Meza Done au eskaintzen dan kristauetzaz. Eskaera oek, Ama Birjiña, Apostolu, Martiri eta Santu guztien bitartez egiten dizkizugu.

*Batek.*—Jesusek, il bear zuan aurreko gauean bere esku done agurgarrietan ogia artu zuan, eta zerurontz begiak jasoaz bedeinkatu zuan, zatitu zuan eta bere ikasleeri eman zien esanaz: *Artu ta jan zazute, au da nere Gorputza.* Ondoren ardoa zeukan kaliza artu zuan, era berean bedeinkatu zuan, eta bere ikasleeri eman zien esanaz: *Artu ta edan; au da zuengatik ixuria izango dan nere Odola.* Eta beste itz oek geitu zituan: *Nik egin detan au nere oroipenez egin zazute.* Itz oen bitartez, ogia bere Gorputz eta ardoa bere Odol, Berak bezelaxe, biurtzeko indarra apaizei eman zien.

*Guztiak.*—Oraintxe bertan, apaizaren itzen bitartez, ogia ta ardoa Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odol biurtuak izango diralakoa biotz-biotzez sinisten det.

---

**OARRA.**—Apaizak *Osti-Deuna* jasotzen

duanean, berari begiratuaz, esan ixilik bakoitzak beregan: **Nere Jaun eta nere Jaungoikoa.** (7 urte ta beŕogeiko barkapen-egunak. Pio X'g. Loreilaren 18'an; 1907).

Odol-Deuna jasotzean, esan: **Aita Betikoa; Jesukristoren odol guztiz agurgaŕia eskeintzen dizut nere pekatuen ordañez eta Eliz-Amaren beaŕetarako.** (100 eguneko barkapenak. Pio VII'g.)

**Konsagrazio ondoren**

*Batek.*—Ama Birjiñagandik jaio zan Jesus, Kalbario mendian il eta andik iru egunera bikain da agurgaŕi piztu zan Jesus uraxe ber-bera ortxe aldare gañean dago Osti Donean ezkutatuta.

*Guztiak.*—¡Bedeinkatua izan bedi Jesus Aldareko Sakramentu Guztiz Donean!

*Batek.*—Biotz otzan eta apalekoa zeran Jesus ona, gure biotz ezti oek zure biotzaren antzekoak biurtu itzazu.

*Guztiak.*—Bai, gure biotz oek garbiak eta esanekoak egin, eta eriotzako orduraño kristau zintzoa izanaz irauteko mesedea egiguzu.

*Batek.*—Jaungoikoak bere Elizari apaizak eman deizkion otoitz egin dezagun.

*Guztiak.*—Zure Elizan sinismena zabaltzeko arazoa Apostoluen ardurapean jaŕi zenduan Jesus on oŕek; Zu ezagutu eta maiteraziko zaituzten apaizak, zure umeen artean aukeratu itzazu.

*Batek.*—Jauna, il diran gure senideetzaz gogoratu zaitez.

*Guztiak.*-Betiko atsedena emaiezu.

*Batek.*—Oroitu zaitez berebat, Jauna, il ziran beste kristau zintzo guztietzaz.

*Guztiak.* — Jaungoikoaren eŕukiz pake gozoan atsedendu ditezela.

*Batek.*—Gutzaz ere eŕukitu zaitez Jauna.

*Guztiak.*—Bai, pekatari gaixo eŕukaŕi batzuek besterik ez gera eta eŕuki gaitzazu. Zure ontasun neguŕigabean uste osoa jartzen degu. Gero betikotasun guztian santuekin batean maitatu gaitzagun zure santuen alkartasunean artu gaitzazu.

## Aita gurean

*Batek.*—Jesukristok ber-berak erakutsi zigun otoitza esan dezagun.

*Guztiak.*—Aita gurea, zeruetan zaudena: santifikatua izan bedi zure izena: betor gugana zure eŕeinua: egin bedi zure borondatea zeruan bezela luŕean ere. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia: barka zazkiguzu gure zoŕak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela: ez gaitzatzu utzi tentazioan erortzen, baizikan gorde gaitzazu gaitzetik. Alaxen.

## Agnus Dei'n

*Batek.*—Munduko obenak kentzen dituzun Jaungoikoaren Bildotsa.

*Guztiak.*—Gutzaz eŕukitu zaitez.

*Batek.*—Munduko obenak kentzen dituzun Jaungoikoaren Bildotsa.

*Guztiak.*—Gutzaz eŕukitu zaitez.

*Batek.*—Munduko obenak kentzen dituzun Jaungoikoaren Bildotsa.

*Guztiak.*—Pakea emaiguzu.

## Jaunartzean

*Batek.*—Jauna, nik ez det merezi Zu nere biotzean sartzea.

*Guztiak.* — *(Eskuaz bulaŕa joaz).* Alaz ere itz bat esan zazu eta nere anima sendatuko da.

*(Iru bider.)*

*(Apaizaren Jaunartze bitartean, jaunartzera auŕeratuko ez diran umeak gogozko jaunartzea egingo dute.)*

*Batek.*—O Jesus, entzun zazu Jaunartze Donean artu nai zinduketen umeen otoitza.

*Guztiak.* — O Jesus gure Erosle maitagaŕia: Zurekin batzeko daukadan gogo au aintzat artu. Gaur goizean poz-pozik artuko zinduket biotz-biotzez maite zaitut-eta; gañera zurekin alkartuta egoteak nere oben eta uts-egiteak gutxitu eta nere griña txaŕak aulduko lituzke. Zure graziaz etoŕi zaitez eta indartu nazazu, Zuga-

nako nere maitetasuna geitu zazu, garbi-garbia eta Zuk nai zenduken bezelakoa izaten lagundu.

### Jaunartze ondoren

*Batek.*—Mezako Opari Donea egin da; Opari Done oŕen irabaziak guganatzeko mesedea eskatu deiogun Jesusi.

*Guztiak.*—O Jesus: Bizitz zintzo baten bitartez, zure semeak geranok, Zeruko zorionera eraman gaitzazu. Maite ditugun guzti-guztiei mesede berau egiezu. Zure neuŕirik gabeko eŕukian pekatari gaxoen animetzaz oroitu zaitez. Zu eurengatik il ziñan, eurengatik jexten zera egunero gure aldare gañera.

### Aizkeneko otoitzetan

*Batek.*—Emendik uŕuti dabiltzan gure lagunen alde Jaungoikoari otoitz bat egin dezaiogun.

*Guztiak.*—Jauna, ez deiezu zure babesa ukatu; eurengandik aŕiskuak

aldendu itzazu; pekatuan ez ditezela erori.

*Batek.*—Kristau-Ikasbidera ez datozten umeengatik ere eskatu dezagun.

*Guztiak.*—Jauna, Zu ezagutu, maitatu eta kristau onak izateko argia, indaŕa eta iraupena guztieri emaiezu.

### Apaizak onespena (bendizioa) emateko garaian

*Batek.*—Meza bukatu da. Apaizaren onespena artzeko burua makurtu dezagun.

*Guztiak.*—Nere Jaungoikoa, zure ordezkoaren eskuaz bedeinkatu gaitzazu: Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

### Aizkeneko Ebanjelioan

*Batek.*—Meza entzuteko grazia eman digulako Jaungoikoari eskeŕak eman deizkiogun.

*Guztiak.*—Esker beroak damazkizut Jauna, Meza entzuten utzi didazulako. Nere buru-arinkeriz egin

izango ditudan utsak barka zazkidazu. Eskeñi dizudan Opari Doneak nere pekatuak garbitu ditzala, eta zirikaldietan gogor egiteko indaŕa eman bekit. Zu naigabetu gabe igaro nai detan egun ontan Zutzaz gogoratuko naiz. Maria Birjiña nere Ama ona eta nere aingeru zaitzale donea, nere asmo onak zuen eskuetan jartzen ditut. Lagundu zadazute, gorde nazazute, zaitu nazazute.

**Meza bukatu ondoren**

*XIII'gaŕen Leon Aita Santuak agindutako eskariak*

(300 eguneko bark·penak)

*Apaizak* iru Agur Maria *eŕiarekin batera esaten ditu; ta gero,*

| Salve Regina | Agur, Eŕegiña |
|---|---|
| MATER misericordiæ. Vita, dulcédo | AGUR, Eŕegiña, Ama eŕukioŕa: gure bizi, gozo ta |

et spes nostra, salve.

Ad te clamámus éxsules filii Evæ.

Ad te suspirámus geméntes et flentes in hac lacrymárum valle.

Eja ergo, advocáta nostra, illos tuos misericórdes óculos ad nos convérte.

Et Jesum benedictum fructum ventris tui nobis post hoc exsilium osténde.

O clemens.

O pia, o dulcis Virgo Maria.

V. Ora pro no-

itxaropena, agur. Zure deiez gaude Ebaren ume erbestetuok: zuri aiezka, antsiz ta negaŕez negar-eŕi onetan. Ea, bada, itzuli itzazu gure bitartekoon oŕek, itzuli gugana zure begi eŕukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori. ¡O Biozpera! ¡O Eŕukior! O Maria Birjin gozoa.

*g)* Otoitz egizu

bis, Sancta Dei Génitrix.

R. Ut digni efficiámur promissiónibus Christi.

gure alde Jaungoikoaren Ama Done ořek.

*e)* Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

*Oremus*

Deus refugium nostrum et virtus, populum ad te clamantem propitius réspice; et intercedente gloriosa et immaculata Virgine Dei Genitrice Maria cum beato Joseph ejus Sponso, ac beatis Apóstolis tuis Pedro et Pau-

*Otoitza*

Jaungoiko gure igesleku ta azkartasuna! Ots egiten dizun eřiari ongi-naiaz begiratu: ta eřugabeko Birjin zoriontsua, Maria Jaungoikoaren Ama, ta Jose bere senar doatsua, Pedro ta Paulo zure Apostoluak eta

lo, et ómnibus Sanctis, quas pro conversione peccatorum, pro libertate et exaltatione sanctæ matris Ecclésiæ, preces effundimus, misericors et benignus exaudi. Per eumdem Christum Dóminum nostrum.

Amen.

beste santu guztiak bitarte ditugula, entzun zure eŕukitasun ta ontasunean gure eskariak, pekatariak biurtu ditezen, ta gure Eliz Ama donea azkatua ta goratua izan dedin. Jesukristo gure Jaun berberaren izenean.

Alaxe.

*Invocatio*

SANCTE Michaël Archángele, defende nos in prælio; contra nequitiam et insidias diáboli esto præsidium.—*Imperet*

*Eskaria*

MIGEL Goiaingeru donea, gure buŕuketan gorde gaitzazu, ta deabruaren maltzurkeri ta ekiñaldieri iges egite-

illi *Deus;* súpplices deprecamur: tuque, Princeps militiæ cœlestis, Sátanam aliosque spíritus malignos, qui ad perditionem animarum pervagantur in in mundo, divina virtute in infernum detrúde.

Amen.

Cor Jesu sacratissimum, miserére nobis.

ko gure gorde-lekua izan zaitez. Aŕen eskatzen dio gu Jaungoikoari ondatu dezala, eta Zuk, zeruko gudarien buruzagi oŕek, gogo indaŕez suleizera bota itzazu deabrua ta bere lagun gaiztoak, gure animak galdu nairik munduan dabiltzanak. Alaxe.

¡Jesusen Biotz guztiz doatsua, gutzaz eŕukitu!

(7 urte ta 7 beŕogeiko barkapenak mez-ondoren iru aldiz esanda; Garbitokiko animentzat izan litezke).

## Ondorengo Otoitza

Eskeŕak damazkitzut, Jauna, zure

mesede guzi-guziakatik, Zuri Jaungoiko Guzialduna, gizaldi ta gizaldietan bizi ta agintzen dezuna. Alaxe.

## Aingeru-otoitza

I

Aingeru batek Mariari
Dio: «graziaz betea»
Jaungoikoaren Semeari
Eman diozu sortzea.
(Guziak).

*Goiz, afats eta eguerdietan*
*Ama, goresten zaitugu;*
*Aingeruaren itzak berak*
*Guk ber-esaten ditugu.*

2

Nere Jaungoikoaren naia
Nigan dedila egiña
Izan nadin, bai, bere Ama
Baña gelditu Birjiña.

*Goiz, Afats...*

3

Jaungoikoaren Seme maitea
Gizatasunez da jazten
¡Oi, ontasun egiazkoa,
Jauna gurekin egoten!

*Goiz, Aŕats...*

# ERASPEN EDO DEBOZIOAK

## SAKRAMENTU GUZTIZ DEUNARI

*Jesusi ikustaldi bat egitera dijoan ume baten*

## OTOITZA

O Jesus, ia astirik geienean bakar-bakaŕik zaude elizan... Ara, ni zuri ikustalditxo bat egitera nator. Gurtzen zaitut. Une batzuetan zure ondoan egon nai det.

Nere jolasak, nere egin-beaŕak, jolasean gelditu diran nere lagunak poz-pozik utzi ditut, zutzaz gogoratzen naizela eta maite zaitudala onuntza etoŕi ta zuri esateaŕen.

Bai, Jesus, zu emen zaude, ortxe

zaude Sagrariyoan itxita; nik ori badakit eta sinisten det. ¡Zenbat bizi dira zutzaz aztuta! ¡Zenbatek uzten zaituzten ortxe Sagrariyoan bakar-bakaŕik! Alaz ere, eurengatik eta mundu guztiarengatik Nekaldia igaro ta gurutzean il ziñan, eurengatik zaude ortxe Sagrariyoan.

O Jesus nere Erosle maite ori! ara emen ni zure auŕean zutzaz aztuta bizi diran eta bakar-bakaŕik uzten zaituzten oien ordez. Zu poztutzera nator. Ni zure laguntxo leiala naiz.

Jesus, Santuak orain zeruan zure arpegi edeŕa ikusiz egiten dizuten agurtza bera nik emen sinismenez ikusiaz egiten dizut. Luŕeko zerua zurekin egotea da.

## Gogozko jaunartzea

*Egizko* jaunartzea **gogozko** jaunartzea baño askoz obea da. Alaz ere egizko jaunartze epelak baño gogozko jaunartze beroak animari on aundigoa egin leioke.

Jauna Ostian artu ezin dezunean gogoz bederen ar zazu. Ořetarako esan:

NERE Jesus laztan maitea: egi-egiaz sinisten det mai-aldareko Sakramentu gurgaŕi onetan, ogiaren antz-irudipean gordeta zaudela; agurtzen zaitut nere Jaungoiko maitea, ta nai zaitut; baña orain gauza ez banaiz Zu nere baŕenean artzeko, atoz gogoz beintzat nere biotzera; bertan bazeunde bezela laztantzen zaitut, Jauna, eta Zurekin bat egin nai det beti. Iñoiz ez aŕ naiz Zugandik aldenduko.

Edo beste auek:

ATOZ, Jesus laztana, nere bizitza, nere maitetasuna; atoz nere biotz otzera; atoz nere naiak betetzera; atoz nere anima santutzera; atoz nigana, Jesus eztitsua atoz.

Ixil-ixiĺik zaude pixka batean. Agurtu zazu Jauna, eskaŕak eman eta mesedeak eskatu.

# JAUNAREN ONEZPENA EGITEKO ERÁ

Jauna agerian jartzen danean:

Pange, lingua, gloriósi
Córporis mystérium,
Sanguinisque pretiósi,
Quem in mundi prétium
Fructus ventris generósi
Rex effúdit Géntium.

Edo ala nai bada: «*O salutaris Hostia*» liburu onen azkenian dagoen bezela.

Uŕen: egoki litzake «*Tu es Petrus*».. edo «*Oremus pro Pontifice*»... emen jartzen diran bezela.

## Pro Summo Pontifice

V. Orémus pro Pontifice nóstro N...

R. Dóminus consérvet eum, et vivíficet éum et beátum fáciat éum in térra, et non trádat éum in ánimam inimicórum éjus.

V. Fiat mánus túa super vírum déxteræ tuæ.

R. Et supra fílium hominis quem confirmásti tibi.

Jauna gorde bear danean:

Tantum ergo Sacraméntum
Venerémur cérnui:
Et antíquum documéntum
Novo cedat ritui;
Præstet fides suppleméntum
Sensuum deféctui.

Genitóri Genitóque
Laus et jubilátio,
Salus, honor, virtus quoque
Sit et benedíctio:
Procedénti ab utróque
Compar sit laudátio. Amen.

V. Panem de cælo præstitisti eis. (T. P. Alleluia.)

R. Omne delectamentum in se habentem. (T. P. Alleluia.)

**Oremus**

Deus, qui nobis sub Sacramento mirabili passionis tuæ memoriam reliquisti: tribue, quæsumus, ita nos Corporis et Sanguinis tui sacra mysteria venerari, ut redemptionis tuæ fructum in nobis jugiter sentiamus. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. R. Amen.

Apaizak Jaunarekin Eŕiari bedeinkapena eman ondoren, Jauna aldareko kutxan sartu baño len, bere auŕean belauniko esan bear dira:

**Birauen ordezko Gorapenak**

BEDEINKATUA izan bedi Jainkoa.

Bedeinkatua izan bedi bere Izen Donea.

Bedeinkatua izan bedi Jesukristo, egizko Jainko ta egizko gizona.

Bedeinkatua izan bedi Jesusen Izena.

Bedeinkatua izan bedi bere Biotz Jaungoikozkoa.

Bedeinkatua izan bedi Aldareko Sakramentu guztiz Donea.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoaren Ama goragaŕi, Maria guztiz Donea.

Bedeinkatua izan bedi bere Sortze Done ta Eŕugabea.

Bedeinkatua izan bedi Maria Birjin ta Amaren Izena.

Bedeinkatua izan bedi bere Ezkontide guztiz garbi Jose Donea.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa bere Aingeru ta Santuetan.

*Aita gurea, Agur Maria, Gloria.*

(Nai danean otoitz au esanda, aldiro urtebeteko barkapena irabazi leike.—Pio VII g. 1801.—Uztail 23 a.)

Ondoren esan leike:

Laudáte Dóminum omnes gentes * laudáte emu ómnes pópuli:

Quoniam confirmáta est super nos misericórdia êjus * et véritas Dómini manet in aetérnum.

Gloria... Sicut erat...

# GURUTZ-BIDEA



*Gurutze Santuaren...*
*Jesukristo nere Jauna...*

## ESKEINTZA

NERE Jesus gozo laztana, daukadazun maitetasunagatik, gurutze aztuna sorbalda gañean arturik, ainbeste bide neketsuetan ibiĺi zerana! Kalbarioko zure oñaze-miñak gaur emen gogoraturik, nere esker ona lendabizi erakutsi nai dizut, ta Gure Eliza Amak eskeñitako barkapen ugariak irabazi ere bai. Garbitokiko anima eŕukaŕien-

tzat, eta batezere, Zuk gog koak dituzun eta geien zor dizuten anima aientzat. ¡Lagundu zaidazu Jauna, bi asmo eder oiek ongi betetzen!

(Toki batetik bestera zuazela esan:)

| | |
|---|---|
| Sancta Mater istud agas. | Jesusek gurutzean. |
| Crucifixi fige plagas. | Artutako zauriak. |
| Cordi meo valide. | Ama, josi nerean. |

## LENENGO EGONALDIA

### **Gure Jesus maitea iltzea erabakitzen dute**

| | |
|---|---|
| *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.* | *Agurtzen zaitugu Jesus ta bedeinkatzen zaitugu, zure gurutze santuz, gizona beŕerosi dezulako* |
| *Quia per sanctam crucem tuam, redemisti mundum.* | |

NERE Jesus maitea ixil-ixilik zaude, juduar lotsagabe ta Pilatosen auŕean, Zu gizonik zuzenena izan aŕen, agintari zital oŕek, bidegabeko epai gogoŕa zure kaltez ematera dijoanean...

Aŕen eskatzen dizut Jauna, emaidazula nere aŕokeria menderatzeko indaŕa, erbesteko naigabeak pozik eramanaz, iritxi dezadan noizbait zeruko zorion edeŕa. Alaxe.

*Aita Gurea... Agur Maria... Aintza (Gloria)*

Esan gero:

| | |
|---|---|
| *Miserere nostri Domine.* | *Gutzaz eŕuki zaitez Jauna.* |
| *Miserere nostri* | *Gutzaz eŕuki.* |
| *Et fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace.* | *Ildakoen animak, Jainkoaren eŕukiaz atseden pakea bezate.* |
| *Amen.* | *Alaxe.* |

Batetik bestera aldatzean esan gorago be-

zela: *Sancta Mater...* edo *Gure Jesus maitearen Nekaldi eriotza, ta bere Amaren atsekabeak, bedeinkatuak eta goretsiak izan bitez. Alaxe.*

## BIGAŔEN EGONALDIA

### Gure Jesus maiteak gurutzea artzen du

*Adoramus...*

ZERU luŕaren Egiḹe ta Jauna: juduar biuŕien menpean jaŕi zera, ainbat neke gogoŕak aien eskuetatik artu ta gero gurutze astuna sorbalda gañean eramateko...

Emaidazu Jauna: neronek ere gurutzea laztantzea, au da: atsekabe-miñ eta ezbear guziak, biotz onez artu ta eramatea, gero zeru edeŕean ikusi zaitzadan. Alaxe.

(*Aita Gurea...* ta ondoren jaŕi diran otoitzak, lenengo egonaldian bezela, beste guzietan esan oi dira).

## IRUGAŔEN EGONALDIA

**Gure Jesus maitearen lenengo erori aldia**

*Adoramus...*

NERE Jesus laztana! Luŕean etzana ikusten zaitut, gurutzepean, guztiz auldu ta nekatua. ¿Gurutze aztunak, bota ote zaitu ba luŕera, zerulurak indartzen dituzun Jaun Altsu ori...? ez: nere oben (pekatu) laŕi ta bidegabekeri aundiak dira; orain ezagutzen det bakoitzaren gaiztakeria.

Emaidazu Jauna oiek biotzez goŕotatzea. Alaxe.

## LAUGAŔEN EGONALDIA

**Gure Jesus maiteak Kalbarioko bidean bere Ama ikusten du**

*Adoramus...*

ANDRE Maria, ama eŕukaŕiena, bai aundia dala oraingo zure oñazea,

Jesus zure Seme laztana ikusiaz txistuz zikindua, zauriz josia, danok iseka-paŕa egiten diotela! Barkatu Ama; nere bidegabeak jaŕi dute zure Semea era ontan, bañon orain aitortzen ditut, auŕerakoan bestea izango naiz.

Emaidazu, Ama laztana, biotz-damu egi-egizkoa. Alaxe.

## BOSGAŔEN EGONALDIA

### Gure Jesus maiteari gurutzea eramateko laguna ematen diote

*Adoramus...*

Nere Jesus txit maitea! Laguna artu dezu gurutzea eramateko, ez laguntza beaŕian arkitzen zeralako, gu oso aldakoŕak, txit aulak eta pekatariak izanik, gure indar utsez ezer ez genezakela erakusteagatik baizik.

Emaiguzu, Jaun maitea, guztioi ain beaŕezko zaigun zure laguntza.

Alaxe.

FUNDACION SANCHO EL SABIO

## SEIGAŔEN EGONALDIA

**Beronika'k Jesus maiteari arpegia garbitzen dio**

*Adoramus...*

ZERUKO izar argiak, eta eguzki diz- diratsua bañon edeŕagoa zeran, Jesus nere Jauna! ¿nork zure arpegi edeŕa, txistuz loitu du...? Neronek pekatariak, nere gaiztakeri ta obenaz (pekatuaz), bañon damutasunezko zapi edeŕaz zure izerdi-loiak orain ken- du nai ditut.

Ezaŕi Jauna, nere biotzean Zure izerdi edeŕa, eta ez naiz auŕerakoan Zugandik aldenduko. Alaxe.

## ZAZPIGAŔEN EGONALDIA

**Gure Jesus maitea bigaŕen aldiz erortzen da**

*Adoramus...*

JESUSEK bigaŕen aldiz luŕa jotzen du, kristaua: ¿zergatik ote, ezpada,

adierazi nai digulako: asmo sendoberiak maiz artu aren, beriz eroriko gerala bere laguntza ez badegu eskatzen? Zoritxarez alaxen da: amaika aldiz gure biotza eman diogu, ta beste ainbestetan beriz ukatu degu, Pedrok bezela; bere laguntza gabe, ezer ez genezake.

Emaiguzu Jauna, gure asmo onak indartuko dituen zure laguntza.

Alaxe.

## ZORTZIGAREN EGONALDIA

### Gure Jesus maiteak Jerusalengo emakumeai itz egiten die

*Adoramus.*

NEGAREZ ikusten ditu Jesusek Jerusalengo alabak, Bera gurutziltzatzera daramatelako, ta erukiz beterik, beren buruaz negar egiteko esaten die, beren buruaz eta beren semeaz..

Gure bañuan daukagu pekatariok zertaz negar egin: gure obenak (pekatuak), gure gaiztakeri ta bidegabeak; oña beti negartu bear deguna, oiek erakañiko digute-ta betiko galera, azkengabeko zoritxaña.

¡Piztu Jauna, gure biotzetan, damutasunezko su-gaña, ta pekatuaganako goñoto bizia. Alaxe.

## BEDERATZIGAÑEN EGONALDIA

### Gure Jesus maitea irugañen aldiz erortzen da

*Adoramus...*

AÑIGAÑIZKO ikusgañia! Zeru-luñaren Egile aundia irugañenez luñera erortzen da. ¿Naikoa ez ote zan, ba, bein eta bitan Berak luña jotzea...? Ez: beañezko zan beñiro, irugañen aldiz erortzea, guztiok ikasi genezan «gurutzea azkenerano eraman

bear degula»; au da, beti izango ditugula ñeke-lanak, oñaze-miñak, ezbear eta naigabeak, bañon biotz-onez oiek eraman bear ditugula.

¡Emaiguzu, Jaun Maitea, gurutzea beti eramateko kementasuna! Alaxe.

## AMARGAŔEN EGONALDIA

### Gure Jesus maiteari soñekoak kentzen dizkate

*Adoramus...*

BEGIRA zazu, kristaua, Jesus zure Jauna aingeru lirañak bañon askoz garbiagoa dana, ortxe biĺotsik, bere etsaien auŕean... ¡au lotsa, ta zenbateko naigabe miña artuko zuen, ain lotsagaŕiro bere burua ikusirikan, ainbeste lagunen artean!

Oŕa nola ordaindu nai izan dituen zure lasaikeri ta loikeriak, zure zabarkeri ta lizunkeri guziak.

¡Emaiguzu, Jauna, biotz-garbitasun aundia! Alaxe.

## AMAIKAGAŔEN EGONALDIA

### Gure Jesus maitea gurutzean josten dute

*Adoramus...*

NERE Jesus eŕukitsu maitea: gurutzean ezartzen dituzu zure esku oñak ta ikaragaŕizko oñaze-miñekin, gurutzean josten zaituzte boŕero biotz-gogor oiek... Bañon ¿zer diot boŕeroak? ni naiz, Jesus maitea, boŕero aundiena, amaika aldiz neronek josi zaitut-eta oŕ gurutzean, pekatu egin dedan bakoitzean.

¡Eŕuki zaitez nitzaz gaur, Jauna, ta barkatu nere bidegabekeri guztiak. Alaxe.

# AMABIGAŔEN EGONALDIA

## Gure Jesus maitea gurutzean iltzen da

*Adoramus...*

IKARATU zaitez, kristaua, Jesus gurutzean zintzilik begiratzen dezula, ikusgaŕirik aundiena zure begiak orain ikusten dute ta.

Gizon zuzenena gaizkil̄e-lapuŕen artean, bildotx otsanena otso amoŕatuen erdian, Jaungoikoaren Semea, ta bera bezela Jaungoikoa, bere etsaien eskuetan, gurutzean josia, odola dariola, oŕa zure pekatuen ordaña.

¡Agurtzen zaitugu, Kristo gure Jauna, ta bedeinkatzen zaitugu, zure gurutze santuaz, ber-erosi gaituzulako! Alaxe,

## AMAIRUGAŔEN EGONALDIA

**Gure Jesusen maitearen gorputza bere Amaren besoetan jartzen dute**

*Adoramus...*

SAMINTASUNEZKO Ama naigabetsua! ¿nork zure oñazeak neurtu, Jesus zure Seme laztana, besoetan il̄a ikusten dezula? Ama eŕukitsu maitea: zure naigabearen añako biotz damua nai nuke, nere pekatuak goŕotatzeko: oiek erail dute-ta zure Seme laztana! ¡Iritxi zadazu, esker edo grazi berezi au: biotzez eskatzen dizut! Alaxe!

## AMALAUGAŔEN EGONALDIA

**Gure Jesus maitearen gorputza obiratzen dute**

*Adoramus..*

BEGIRA zazu azkenean, kristaua, Jesusen gorputz il̄a jaŕi duten obia;

obi beŕia da, arkaitzean zulatua, ta aŕi lodi batek ixten du bere saŕera; zure biotzak ere, obi beŕia bear du izan, Jesus ez izatera beste iñor gordeko ez duena; saŕerako aŕiak erakusten digu, ardura aundiaz zaitu bear degula, Jesusen etsaiak, bertan sartu ez ditezen, berak egin dizkizun esker-doaiak lapurtzera.

¡Andre Maria! nere Ama, emaidazu zure Seme ta nere Erosle maiteaganako maitetasun sutsua. Alaxe.

---

## JESUKRISTOREN BOST ZAURIAI

*(Xabier-tar Prantzisko Deunak egin oi zuen otoitza).*

NERE Jaun ta Jaungoiko Jesukristo: guganako maitetasunak gurutzean iriki zizkizuten bost zauriagatik, eta gurutzeko bidean izan zenituen beste ezin neurtu ala gorputz-uŕatze min-

berakgatik, eskatzen dizugu: zure odol ordaingabekoz gaitzgabetutako guziok, zure eŕukia, zure laguntza, ta betiko zoriona iritxi dezagula.

(5 *Aita gure*, *Agur Maria* ta *Gloria*, ta beste bat azkenean Aita Santuaren alde).

Gero:

*Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi,*

*Quia per sanctam crucem tuam, redemisti mundum.*

*Oremus.*

Respice quæsumus Domine, super hanc familiam tuam, pro qua Dominus noster Jesus Christus non dubitavit manibus tradi nocentium et crucis subire tormentum. Qui tecum vivit et regnat, in unitate Spiritus Sancti Deus, per omnia sæcula sæculorum. Amen.

## *Jesus Gurutziltzatuaren bost Zauriai Agurak*

(Gorago jaŕi dan otoitzaren ordez, beste au esan leike, Gurutz-bidea bukatzeko).

*Ezkeŕeko-oñeko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesusen zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere ibilera gaiztoz egindako pekatu guztien barkapena. *(Aita gurea, Agur Maria, Gloria).*

*Eskuiko oñeko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut nere Jesusen zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere itz ta egintza gaiztozko pekatuak barkatzeko. *(Aita gurea, Agur Maria, Gloria).*

*Ezkeŕeko eskuko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesusen zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere begi ta beste zentsunez

egindako pekatuak barkatzeko. *(Aita gurea...)*

*Eskuiko eskuko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesusen zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere oroimen, adimen, ta naimenaz (borondatez) egindako pekatuak barkatzeko. *(Aita gurea...)*

*Saietzeko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesusen zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut Jauna: zure Biotza aztamakil gogoŕak eta zure Amarena ezpata zoŕotzak josi zuen bezela, zure maitetasunak nere anima josi dezala. *(Aita gurea...)*

(Beste *Aita gurea, Agur Maria* ta *Gloria,* Aita Santuaren alde).



# JESUSEN BIOTZAGANAKO ERASPENA

Asko ta aundiak dira Jesusen Biotz eŕukitsuak bere maitaleai agindutako eskeintzak.

## Amabi eskeintzak

1.ª Beren bizibidean bear dituzten laguntasun guztiak Nik emango dizkiet.

2.ª Beren sendi edo familietan pakea zabalduko det.

3.ª Atsekabe guztietan Nik alaituko ditut.

4.ª Bizitzan eta batezere eriotz-aldian, beren igesleku ta estalpea Ni izango naiz.

5.ª Beren eginkizun guztietan bedeinkatu ta lagunduko ditut.

6.ª Eŕukizko itxaso-baztergabea pekataŕiak nere Biotzean arkituko dute.

7.ª Kristau epelak berotuko ditut.

8.ª Beroak, nere maitetasunean, irazekiko ditut.

9.ª Apaizai, biotz gogoŕenak biguntzeko, doaia emango diet.

10.ª Nere Biotz-irudia agirian jaŕiko duten etxeak bedeinkatuko ditut.

11.ª Nere biotzaganako maitetasuna zabalduko duten guztien izenak nere Biotzean ezaŕita gordeko ditut.

12.ª Iïaren lenengo bederatzi ostiraletan jaŕaiturik, jaunartuko duten guztiei, ñeuŕi gañezko nere Biotzaren eŕukiak eskeintzen diet: ez dirala nere asaŕean ilko, ezta-re elizakoak artu gabe.

## Lenengo bederatzi ostiralak edo

## Agindu aundia

Ara emen Jaunaren ezpañetatik Alakoke'tar Margarita Maria deunak entzundako itz edeŕak:

Nere Biotzaren neuŕi gañezko eŕukiak, ta nere maitetasun guzialdunak, iïaren lenengo bederatzi ostiral jaŕaitutan, Jaunartuko duten guztiei agintzen die: nere aseŕean ez dirala ilko, eztaere elizakoak artu gabe: ta azken

une ларian nere Biotza gorde-leku bene-benetakoa izango dutela.

*Agintzen dana:*

Jaungoikoaren adiskidetasunean iltzeko esker edo grazi berezi-aundia eskeintzen digu Jesusen Biotz eŕukioŕak: beraz bederatzi lenengo ostiral jaŕaitutan Jaunartuko duten guztiok, naiz dala lenagotik elizakoak artzen dituztela, edo oiek ezin artnrik, biotz damu egizkoa egiten duela, Jaungoikoaren laguntasunean ilko dira, ta zerua irabaziko dute.

*Eskatzen zaiguna:*

Esker edo grazi berezi aundi ori irabazteko, *naiko da, bederatzi lenengo ostiral jaŕaitutan Jaunartzea:* ez dira beraz beaŕezkoak, Jaunaren adiskidetasunean (grazian) gaudela, ez aitortzea, eztaere beste otoitz edo egikizunik. Ala baño irabazi aundiagoak oneraspen ontatik ateratzeko, guztiz gogogaŕia izango da, egun oietan otoitz edo elizkizunak egitea, Jesusen Biotzaren gorespen aintzaz.

(Barkapen osoa irabazten da, lenengo ostiral bakoitzean, aitoŕtu, Jaunaŕtu, Aita Santuaren aldez eskatu, ta Jesusen Biotzari otoitz bat edo beste esan-da).

*Jaunartu ondoren, lenengo ostiral bakoitzean esan leiken Otoitza*

JESUS txit eztitsua! zure Biotzaren neuŕigañezko maitetasun eta eŕukiak zure adiskidetasunean ilko dirala agindu die, lenengo bederatzi ostiral jaŕaitutan Jaunartuko duten guztiei: aŕen, eskatzen dizut Jauna: nitzaz eŕukitu zaitez, ta zure agindu ori gogoratuaz emaidazu, nere oben edo pekatu guztiak goŕotaturik, zure maitetasunean iltzea.

¡Jesusen Biotz eŕukioŕa, zeruko ate zabala, nitzaz eŕukitu!

¡Jesusen Biotz eŕukioŕa, aberastasunez betea, nitzaz eŕukitu!

¡Jesusen Biotz eŕukioŕa, Zugan iltzen diranen itxaropena, nitzaz eŕukitu!



# ANDRE MARIAGANAKO ERASPENA

Amarik gabeko umea ume zurtza da; ama duen umea, beŕiz, zorionekoa da. Estutasun ta laŕitasunetan umeak amari deitzen dio: ez baida umearentzat amaren magala baño babes oberik. . Jakizu, bada, ume, badezula zeruan luŕeko amak baño askoz maitego zaitun Ama on bat. Jesusen Ama bera da zure Ama. Izan zaite bere seme edo alaba ona, maite zazu asko zure Ama on ori, ta bere magaletik ez beiñere aldegin.

Zeruko Amaganako erazpenik onenetako bat au da:

## AGURTZA DEUNA

(EŔOSARIOA).

*Otoitz guztiz edeŕa:* ez da gizonak asmatutakoa, zerutik jetxia baño: Ama Mariak berak Domingo Santuari erakutzitakoa da.

*Otoitz guztiz ederá:* otoitz ederénak berekin dauzkalako:

*Aita gurea* Jesukristok asmatua, *Agur Maria* aingeruak zerutik ekária, *Santa Maria* ta *Gloria* Eliz-Amak jaŕiak.

*Gure auŕekoak, euskaldun zaŕak, eŕosarioaren oso zaleak ziran.*

Jayera (debozio) eder onek sortu ditu gure Eŕian entzute aundiko deun (santu) ospatsuak: Loyolatar Iñazio, Xabier, eta Martin deunak, Lizardi, Tomas eta Beŕiotxoa zoriundunak.

Berak gorde ditu gure Eŕian, sinismen ta oitura garbiak, eta gure egunetan ere, ainbat sinisgabeko edo sinisgalduko eŕidien artean, sinismenak (fedeak) gure Eŕian dizdiratzen badu, eŕosarioari zor diogu.

*Gure asaba zaŕak bezela, esan dezagun egunero, guztiok batean etxean, agurtza edo eŕosario deuna.*

## Agurtza esateko era

Gurutze santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

| | |
|---|---|
| *1) Dómine, labia mea apéries,* | 1) Jauna, nere ezpañak idiki. |

| | |
|---|---|
| *2) Et os meum annuntiábit laudem tuam.* | 2) Tanereaoak zure gorapena esango du. |
| *3) Deus, in adjutorium meum intende* | 3) Jauna, lagundu zadazu. |
| *4) Domine, ad adjuvandum me festina.* | 4) Neri laguntzera azkar zatozkit. |
| *5) Gloria Patri et Filio et Spiritui Sáncto.* | 5) Aintza Aitari ta Semeari ta Spiritu Sàntuari. |
| *6) Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in sœcula sœculorum. Amen.* | 6) Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Alaxen. |

Maria, esker eta eŕukizko Ama, etsaietatik gordeaz eraman gaitzatzu zugana. Amen.

## Pozezko eskutukiak

*(Astelen-ostegunetarako)*

1'goa: Jaungoiko Semea gizon egitea.

*Eskaria:* Apaltasuna.

*Aita gurea... 10 Agur Maria* ta *Gloria.*

Maria, esker eta...

2'goa: Andre Mariak bere lengusuari egindako ikustaldia.

*Eskaria:* Lagun-urkoaganako onginaia.

3'goa: Jaungoiko Semearen jayotza.

*Eskaria:* Luŕeko ontasunetara biotza ez makurtzea.

4'goa: Andre Maria Elizan sartzea.

*Eskaria:* Jaungoikoaren eta Eliz-Amaren legeak jaŕaitzea.

5'goa: Jesus Auŕa galdu ta arkitua.

*Eskaria*: Pekatuagatik Jauna galdu badegu, lenbailen arkitzea.

## Nekezko eskutukiak

*(Astearte ostiraletarako)*

1'goa: Getsemaniko baratzan Jesusen otoitza.

*Eskaria:* Pekatuen damua.

2'goa: Jaungoikoaren Semea zigoŕez joa.

*Eskaria:* Loikerizko pekatuetatik iges egitea.

3'goa: Jesukristoren arantzazko burestuna (koroia).

*Eskaria:* Gogapen (pentsamentu) txaŕetatik alde egitea.

4'goa: Jesukristo gurutze aztunaz zamatua.

*Eskaria:* Naigabezko eramankizunetan etsipena.

5'goa: Jesukristoren gurutzeko eriotza.

*Eskaria:* Jesukristoren eriotza gure biotzetan pekatu laŕiaz ez beŕitzea.

## Aintzazko eskutukiak

*(Azteazken, larunbat eta igandeetarako)*

1'goa: Jaungoiko Semearen piztuera.

*Eskaria:* Grazizko bizieran il arteraño irautea.

2'goa: Jaunaren igoera zerura.

*Eskaria:* Zeruratzeko zaletasuna.

3'goa: Espiritu Santuaren etoŕera.

*Eskaria:* Otoitza maite izatea.

4'goa: Andre Mariaren jasoera zerura.

*Eskaria:* Eriotz on bat egiteko santuen antzera bizitzea.

5'goa: Andre Mariaren bureskundea (koroazioa).

*Eskaria:* Andre Mariaganako zaletasuna.

*Aŕentza (Letaniya)*

| | |
|---|---|
| Kyrie eleison | Jauna, gutzaz eŕukitu. |
| Christe eleison | Jesu-Kristo, gutzaz eŕukitu. |

| | |
|---|---|
| Kyrie eleison | Jauna gutzaz eŕuki tu. |
| Christe audi nos | Jesu-Kristo entzun zaiguzu. |
| Christe exaudi nos | Jesu-Kristo entzun zaiguzu. |
| Pater de coelis Deus, *miserere nobis.* | Zeruko Aita Jaungoikoa, *gutzaz eŕukitu.* |
| Fili Redemptor mundi Deus, *miserere nobis.* | Jaungoikoaren Semea, gizonen Eroslea, *gutzaz eŕukitu.* |
| Spiritus Sancte Deus, *miserere nobis.* | Espiritu Santu Jaungoikoa, *gutzaz eŕukitu.* |
| Sancta Trinitas unus Dens, *miserere nobis.* | Irutasun deuna, Jainko bakaŕa. *gutzaz eŕukitu.* |
| Sancta Maria, *ora pro nobis* | Maria Deuna, *gutzaz eskatu.* |
| Sancta Dei Genitrix, | Jaungoikoaren Ama deuna. |
| Sancta Virgo Virginum | Birjiñen - Birjiña Deuna. |
| Mater Christi | Jesu-Kristoren Ama. |
| Mater Divinæ gratiæ | Jaungoikozko eskeŕaren Ama. |

| | |
|---|---|
| Mater purissima | Ama txit garbia. |
| Mater castissima | Ama eŕu gabea |
| Mater inviolata | Ama kutsu-gabea |
| Mater intemerata | Ama orbangabea |
| Mater inmaculata | Ama sortzez-gar- |
| Mater amabilis | Ama maitagaŕia [bia |
| Mater admirabilis | Ama miragaŕia |
| Mater boni consilii | Ama itun onekoa |
| Mater Creatoris | Egil̄earen Ama |
| Mater Salvatoris | Eroslearen Ama |
| Virgo prudentissima | Birjiña txit begiratua |
| Virgo veneranda | Birjiña gurgaŕia |
| Virgo praedicanda | Birjiña goragaŕia |
| Virgo potens | Birjiña indartsua |
| Vingo clemens | Birjiña eŕukitsua |
| Virgo fidelis | Birjiña zuzena |
| Speculum justitiæ | Zuzentasunaren ispilua |
| Sedes Sapientiæ | Jakintzaren jar-lekua |
| Causa nostrae letitiæ | Gure pozaren ituŕia |
| Vas spirituale | Gogozko ontzia |
| Vas honorabile | Ontzi omengaŕia |
| Vos insigne devotionis | Oneraspen ontzi ospetsua |
| Rosa mistica | Aŕosa miragaŕia |
| Turris Davidica | Dabiden doŕea |
| Turris eburnea | Marfil̄ezko doŕea |
| Domus aurea | Uŕezko etxea |

ORA PRO NOBIS

GUTZAZ ESKATU

| | |
|---|---|
| Foederis arca | Elkartasun kutxa |
| Janua coeli | Zeruko atea |
| Stella matutina | Goizeko izaŕa |
| Salus infirmorum | Gaxoen osasuna |
| Refugium peccatorum | Pekatarien babesa |
| Consolatrix afflictornm | Atsekabetuen pozgiĪea. |
| Auxilium christiancrum | Kristauen laguntza |
| | Kristauen laguntza |
| Regina Angelorum | Aingeruen Eŕegiña |
| Regina Patriarcharum | Aita-Nagusien Eŕegiña |
| Regina Prophetarum | Iragarleen Eŕegiña |
| Regina Apostolorum | Bidalien (Apostoluen) Eŕegiña |
| Regina Martyrum | Ziñopen (Martirien) Eŕegiña |
| Regina Confessorum | Aitorleen Eŕegiña |
| Regina Virginum | Birjiñen Eŕegiña |
| Regina Sanctorum omnium | Done(santu) guztien Eŕegiña |
| Regina sine labe originali concepta | Jatoŕizko eŕu gabe sortutako Eŕegiña |
| Regina sacratissimi Rosarii | Aguıtza txit deunaren Eŕegiña |
| Regina pacis | Pakezko Eŕegiña |
| ORA PRO NOBIS | GUTZAZ ESKATU |

| | |
|---|---|
| Agnus Dei qui tollis peccata mundi, *parce nobis Domine* | Jaungoikoaren Bildotsa, gizonen pekatuak kentzen dituzuna, *barka zàguzu Jauna.* |
| Agnus Dei qui tollis peccata mundi, *exaudi nos Domine.* | Jaungoikoaren Bildotsa, gizonen pekatuak kentzen dituzuna, *aditu zaiguzu Jauna.* |
| Agnus Dei qui tollis peccata mundi, *miserere nobis.* | Jaungoikoaren Bildotsa, gizonen pekatuak kentzen dituzuna, *gutzaz eŕukitu Jauna.* |
| V. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix | V. Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama Done ońek. |
| R. Ut digni efficiamur promisionibus Christi. | R. Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun. |
| *Oremus* | *Otoitza* |
| Gratiam tuam, quaesumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante, Christi Fi- | Ixuri ezazu, ańen, Jauna, gure biotzetan zure grazia, Jesukristo zure Semearen Gizakundea, Aingerua- |

lii tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus et crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur.

Per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

ren esanaz ezagutu genduanok, bere nekaldi ta Eriotzaren bitartez, aintzazko piztuerara eldu gaitezen: gure Jaun Jesukristo beroŕengatik.

Alaxe.

## DE PROFUNDIS

*(Ildakoen alde esan oi dan otoitza)*

1) De profundis clavide ad te, Domine. Domine exaudi vocen meam.

1) Baŕen-baŕendik ots egiten dizut, Jauna. Jauna, entzun nere abotsa.

2) Fiant aures tuae intendentes, in vocem deprecationis meae.

2) Zure belaŕiak ipiñi itzazu, nere otoitzaren abotsera.

3) Si iniquitates observaveris Domine ¿Domine quis sustinevit?

3) Gaiztakeriei begiratzen badiezu, Jauna ¿nor legoke zure auŕean?

4) Quia apud te propitiatio est, et propter legem tuam sustinui te Domine.

4) Baño Zugan eŕukia da, eta zure legean itxaropena daukat, Jauna.

5) Sustinuit anima mea in verbo ejus: speravit anima mea in Domino.

5) Jaungoikoaren aginduetan nere gogoak ustea dauka, Jaungoikoagan itxaropena jaŕi du.

6) A custodia matutina usque ad noctem, speret Israel in Domino.

6) Goiz-goizetik aŕatseraño, Israelek Jaungoikoagan itxaron beza.

7) Quia apud Dominum misericordia, et copiosa apud eum redemptio.

7) Jaungoikoa eŕukitsua dalako ta txit ugaria bere barkapena.

8) Et ipse redimet Israel, ex

8) Bai, Berak azkatuko du Is-

omnibus iniquitatibus ejus.

V. Requiem aeternam dona eis Domine.

R. Et lux perpetua luceat eis.

V. Requiescant in pace.

R. Amen.

*Oremus*

Fidelium Deus omniium Conditor et Redemptor, animebus famulorum famularumque tuarum remissionem cunctorum tribue peccatorum, ut indulgentiam quam

rael, bere gaiztakeri guzti-guztietatik.

V. Azkengabeko atsedena, emaiezu, Jauna.

R. Eta betiko argiak argi bizaie

V. Pakean beude.

R. Alaxe.

*Otoitza*

Jauna, Kristau guzien Egil̄e ta Eroslea, zure jaŕaitzal̄e gizon-emakumien animai beren pekatu guztien barkapena emaiezu; otoitz beroen bitartez betl nai izan zu-

semper optaverunt, piis supplicationibus consequantur.

Qui vivis et regnas in saecula saeculorum.

Amen.

ten barkapena iritxi dezaten.

Beti ta beti bizi ta agintzen dezun Jaun oŕek.

Alaxe.

*(Eŕosarioa beti zerekin erabili zazu. Naiz eŕosarioa esateko, naiz banaka esateko, Agur-Maria bakoitzean beatzak eŕosarioaren ale bat ikuturik, barkamen asko irabazi zenezazke-ta. Eŕosarioa bedeinkatutakoa ta barkamenduna eduki.*

# Santu batzuenganako eraspena

## Jose Deunari

### *Garbitasuna eskatzeko Otoitza*

ANDRE Mariaren Senar guztiz garbia, ta Jesusen Aitorde zuzena, Jose Doatsua: gorputz-animaren garbitasun osoa, guretzat eskatu, edo-

zein pekatuz garbiak, eta eztai-soñekoarekin Jantzirik, zeruko eztaietara sartu gaitezen. Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxe.

*Eriotz on bat iristeko Otoitza*

ZUGANA nator, Jose Deuna, il-zorian daudenen Zaindaria, eta zuri, zeure eriotz dontsuan Jesus ta Maria begira zegozkizun oŕi, eskar pozgaŕi bikoitz oŕegatik, il-zori neketsuan dagon N. mirabe onen anima zure ardurapean gogoz jartzen det, deabruaren maltzurkerietatik eta betiko eriotzatik, zure laguntzaz, aldendu eta betiko zorionean sartzea merezi dezan. Kristo gure Jaunagatik. Alaxe

**Gonzaga'tar Luis Deunari**

AINGERUEN antzekoa ta garbitasunaren ixpilua zeran Luis santua; nere gorputz ta animaren garbitasu-

[library stamp: ...CION SANCHO EL SAB...]

na zure eskuetan jartzen det. Ez utzi, nere aingeru oŕek, pekaturik txikienaz nere anima loitzen. Josi nere biotz baŕu-baŕuan Jaungoikoaganako beldur santua, ta kixkali nazazu bere maitasunaren su bizian, zure antzekoa luŕean izanik, gero zurekin batean zorionekoa zeruan izateko. Alaxen.

## Kostka'tar Estanislao Deunari

GURE Zaindari maite, Estanis Deuna! Deuntasunezko edergaŕirik egokienez apaindu zizun Jaungoikoak biotza: Beragandik artu zendun, bada, Ama guziz garbiaren bitartez, Jesusen Lagundira juateko agindua; agindu au betetzeko gogo irazekia Berak eman zizun; Berak Aldarean daukagun Jesus-ganako esan al baño maitasun aundiagoa; Berak Ama garbi garbiarenganako

żaletasunik biziena; Berak apaltasuna eta nekerik gogoŕenak pozez eraman naía eman zizkitzun. Jaungoikoagandik artutako apaindura oek zugan ikusita, lagun zaiguzu, aŕen, edergaŕi oyek guretzat ere Jaun Beragandik irixten, iritxitakoan iñoiz galdu gabe erabiltzen, Zure antza emengo bizitzan artuta, gerokoan ere Zu bezela, betiko atsegiñetan bizi gaitezen. Alaxen.

## Garbitokiko animenganako eraspena

Izan zaite, ume, besterekin eŕukitsua ta zuretzat ere izango da eŕukia.

Bein eriotzako ateak igaro ezkero, irabaz bidea bukatu da. Andik auŕera ez dago besterik: ¿egin dezu on? ar zazu sariya; ¿oker egin dezu? ordaindu zazu.

Jaungoikoak asko maite ditu anima aiek ez ditu, alaz ere, zerura eramango Garbitokiko oñazetan garbi-garbi egin bitartean. Anima gaxo aiek berentzat egin eziñ lezaketena guk emendik egin genezaieke. Jesukristo gure Jaunak bere irabazi guztik Eŕo-

mako Aita Santuaren eskutan utzi zituen. Irabazi oiek Aita Santuak gure eskutan jartzen ditu, guk otoitz eta eginkizun onen bidez anima aien zoŕa ordaindu ta lenbailen zerura joan ditezen.

Oŕetarako bide asko dauzkagu kristauok Gaŕbitokiko animai laguntzeko; oien artean *a*) *otoitzak*, batez ere barkamenez aberastutakoak; *b*) norbere buruari kutizi bat ukatu; *c*) beartsuari ogi zati bat eman; *d*) animen alde jaunartu; *f*) ta batezere *Meza Santua* atera eta entzun.

¡Nolako poza emango zeñioken animari Garbitokitik atera ta zerura bialiko bazendu!

Alegin zazu, ume, anima gaxo aiei laguntzen, zu ere ara joaten bazera, lenbailen andik aterata zerura betiko igo zaitean.

# Argi Done labuŕa

lenbiziko jaunartze ospatsua egin bitarteko umetxoentzat egiña da. Bein jaunartze ospatsua egin ezkeroz, andik auŕerako or daukazue beste liburu ARGI DONEA. Bein jaunartze ospatsua egin ezkeroz, umetasuna utzi ta zentzutasunean sartzeko garaia asten da.

Oŕegatik, bada, zentzutasuneko kristau bizitza oñaŕi irme ta iraunkoŕaren gañean jasotzeko, egun batzutako gertuera eskatzen du.

Ez gera gu bakarik uste ontakoak. Apaiz jaun guztiak gure iritzikoak dira, ta apaiz

oietako askok eskatuta jartzen degu emen

## Lenengo jaunartze ospatsua egiteko gertuera

Jesukristo gure Jauna Jaungoiko-Gizona zeruan dagon bezelaxe aldareko Sacramentuan artzea da kristau batek izan lezaken zorionik aundiena. Zorion onekin berdindu liteken beste zorionik ez dago. Ořegatik lenengo aldiz egiten dan jaunartzea zorionik aundienekotzat beti ezagutu izan oi da.

